

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a / 728. zenbakia

INGURUMENA/ Mugikortasun Iraunkorraren Astea 2005

Ikastaroak, liburuxka bat, autobuserako bonoak... Denetarik, Mugikortasun Astean

UBANE MADERA

Gaur hasi eta eguenera arte egingo dituzte Mugikortasun Astearen barruko ekitaldiak Arrasaten. Bestelakoan artean, Udalak hitzarmena sinatuko du herriko autoeskoletan, modu efiziente eta ekonomikoan gidatzeko aholkuak ikasleei erakutsi diezaizten.

Horren harira, gaur eta datorren martitzenean, gai bera lantzen duen liburuxka bat banatuko du Udalak gidarien artean, *Gidatzeko era efiziente-ekonomikoa* izenburua du. Herriko hiru puntutan ibiliko dira liburuxka banatzen: Udala plaza inguruan, Ferialeku eta Correos inguruan eta Garibai etorbideko semaforotan. Ordu puntetan egingo dute banaketa, eguerdian eta arratsaldean, bietan. Horrez gainera, herriko autoeskoletan ere banatuko dituzte liburuxkak.

BIHAR, HITZARMENA

Zapatuan, berriz, gai bera lantzeko ikastaroa egingo dute. Helduen Hezkuntza Iraunkorreko lokalean. 10:00etan hasiko da. Kataluniako RAC elkartearekin batera antolatuta du Udalak ikastaroa. Zazpi irakasle etorriko dira Zaragozatik eta zazpi ordenagailu eka-

rriko dituzte, CO2ren emisioa eta kontsumoen neurketak egiteko. 20 pertsonarendako lekua dago ikastaroan eta oraingo honetan, besteak beste autoeskoletako irakasleak, taxilariak eta Agenda 21eko ordezkariak gonbidatu ditu Udalak. Horren harira, bihar bertan hitzarmena sinatuko dute autoeskoletako irakasleekin, haiek ikastaroan ikasitakoa, zelanbait euren ikasleei erakusteko.

Bestalde, ikastaroak arrakasta izanez gero, datorren urtean errepikatze asmoa du Udalak, oraingo honetan, interesa duen edozeinendako.

Era berean, bideo bat ere egingo dute, gainerako herritarrei gomendio horiek helarazteko.

DOMEKAN, IBILALDIA ETA ZOZKETA

Eta domekan, Arrasateko ikasleek dute hitzordua Mugikortasun Astearekin. 11:00etan ibilaldia egingo dute, Athlon-ekin batera. Seberretik aterako dira. Bukatu ostean, *Mount Gambier* mendiko bizikleta zozketatuko dute. Zozketa horretan parte hartzeko; eskoletan banatu dituzten txartelak bete beharko dituzte.

MUGIKORTASUN PLANA

Hurrengo asteari dagokionez, astelehenean, Mugikortasun Plan Iraunkorra aurkeztuko diote



Gidarien artean banatuko dituzte, besteak beste, liburuxka horiek; Artemanekin egin ditu.

Mugikortasun Plana jendaurrean aurkeztuko dute astelehenean, 19:00etan

udalbatzarrari, hark onespena eman diezaion. Arrasaten eragin handia izango du plan horrek, haren bitartez aurkeztuko dute eta, besteak beste, bidegorri azpiegitura eta zirkulazioarekin eta autoen aparkalekuekin lotutako etorkizuneko arauak. Era berean, 19:00etan, jendaurrean aurkeztuko dute plan bera.

Eguaztenean, berriz, *Oinak zertarako?* izeneko hitzaldia egingo du Amparo Urkola psikologoak, udaletxean. 19:00etan izango da.

Eta eguenean, hilak 22, *Autirik Gabeko Eguna* ospatzeko, besteak beste, Garibai eta Biteri itxi eta zenbait ekitaldi egingo dituzte han, adin guztietarako, irisgarritasuna lantzeko. Esaterako, erruberadun aulkiak eta makuak ipiniko dituzte, jendeak erabil ditzan eta modu horretan konaturatu daitezzen zenbaitek izaten dituzten zailtasunekin.

Badatoz Garagartzako laminak eta Neanderthalgo gizakiak, jaietarako

U.M.

Datorren barikuan hasi eta eguenera arte, jaietan ibiliko dira Garagartzako auzotarrak. Kirola, kontzertua; dantzak, bazkaria... egingo dituzte auzotarrek eta Garagartzara doazen gonbidatuek.

Gaur zortzi, 19:30ean hasiko dira jaiak, etxafuego eta bestelakoekin; ordu laurden geroago, bertso-saioa egingo dute; 22:00etan, dantzaldia,

Txinparta taldearekin eta gauerdian, laminei eta Neanderthalgo gizakiei ongi etorria egingo diete. Era berean, gauz bolatokia zabalik izango da, guztiondako.

ZAPATUAN, KIROLA ETA MUSIKA

Zapatuan, berriz, 12:00etan auzoko hildakoen aldeko meza esango dute; 12:00etatik 14:00etara, Kulkirekin arrantzaleen joko eta jolasen jai izango da; 16:30etik 18:30era, futbol partiduak, umeendako; 18:30etik

20:30era, Gorritiren animaliak eta 21:00etatik 01:00etara, rock jaialdia, *Garagartzako Bigarren Neanderthal* rock kontzertua. Gau horretan ere zabalik izango da bolalekua.

Bukatzeko, domekan, 11:00etan meza izango da, 12:00etan dantzak, Txikitxurekin eta 14:30ean, auzo bazkaria eta erromeria. Hurrengo eguenean, berriz, 19:00etan meza esango dute eta gero, luntxa egingo dute Patxizenean.



Gazteek eta umeek zapatuan aukera zabalak izango dute Garagartzan.

ARTXIBOA

GRIPEAREN KANPAINA/ Irailaren 19tik azaroaren 4ra arte

Guztia gertu dute gripearen kontrako aurtengo kanpainarako

UBANE MADERA

Betiko moduan, 65 urtetik gorako pertsoneri eta gaixotasun kronikoak dituztenei (biriketakoak, bihotzkoak, giltzurrunekoak, diabetea...) zuzenduta dago gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina. Medikuek txertoa hartzeko gomendatzen dute.

Izan ere, gerta liteke txertoa hartu arren, gripea izatea, baina gripe horren eragina askoz ere txikiagoa izango da txertoa hartuz gero. Hala diote medikuek.

Gauzak horrela, 65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoak dutenek txertoa hartzeaz gainera, beste batzuek ere eska dezakete txertoa; esaterako, pertsona nagusiek in harreman handia dutenek (gizarte laguntzailleek, adibidez).

Arrasaterako, hasiera batean, 4.250 txerto prestatu ditu Osakidetzak. Hiru txandatan ekarriko dituzte; are gehiago, aurreneko txertoak atzo eta herenegun iritsi ziren Arrasatera.

Edozelan ere, ekarritako txerto guztiak gastatuz gero, beti da posible gehiago ekartzea. Beraz, jendeari txertoa hartzera joateko dei egiteaz gainera, dei egiten dute, baita ere, lasai ibiltzeko, guztiendako izango da eta nahikoa txerto. Horixe adierazi digu anbulatorioko arduradun Edurne Marañonek.


TXANDA HARTU BEHAR

Halaber, gogorarazi digu txertoa hartzeko derrigorrezkoa dela alde aurretik txanda eskatzea. Horretarako anbulatoriara deitu beharra dago (943 03 52 50).

Berez, txerto gehienak 08:30etik 12:30ak arte emango dituzte. Gela bat prestatuko dute horretarako, lehenengo solairuan. Edozelan ere, ordu horietan ezin duenari, arratsalderako emango diote txanda; 20:00ak arte izango da eta txertoa hartzeko aukera. Kasu horretan, medikuaren kontsultan hartuko dute.

BATZUEK BOLANTEA BEHAR DUTE

Bestalde, 65 urtetik gorakoak bolante barik joan daitezke txertoa jartzera; gaixotasun kroni-



Lehenengo solairuan gela bat prestatuko dute txertoak ipintzeko.

65 urtetik gorakoak zuzenean joan daitezke txertoa hartzera, bolante barik

koren bat duten 65 urtetik beherakoek, berriz, medikuaren edo erizainaren kontsultan bolantea jaso beharko dute. Gauza bera egin beharko dute kanpaina horren barruan sartzen ez diren eta txertoa hartu gura duten gainerakoek ere.

AUZOETARA ETA ETXEETARA

Aipatzekoa da, baita ere, txertoa hartzeko anbulatoriara joan

Etzetik atera ezin dutenek etxean hartu ahal izango dute gripearen kontrako txertoa

ezin duenak, auzoetan bertan hartu ahal izango duela; hain justu ere, auzoetako alkatetzetan edo zaharren egoitzetan izango dira erizainak, 12:00etatik 13:00etara.

Era berean, etxean dauden ezinduek euren medikuarekin edo erizainarekin harremanetan jar daitezke, eta anbulatorioko norbait etxera joango zaie txertoa ipintzera.

LABUR

Katekesirako izena emateko epea zehaztu dute: datorren eguaztenean eta eguenean

San Juan parrokiako Katekesi Batzordeak zera jakinarazi gura du: oraingo ikasturtean aurreneko mailan hasi diren neska-mutikoen izenak emateko epea irailaren 21ean eta 22an egongo dela zabalik, 17:00etatik 19:00ak arte. Horretarako, Iturriotz kalean dagoen Abade etxera joan beharko da. Era berean, gurasoek lehenago hartu dituzten fitxak beteta eramatea eskatzen du Katekesi Batzordeak.

Garibai kalea esandakoa baino bi egun geroago itxiko dute, grebarengatik

Biteri etorbideko aparkalekuko lanak direla-eta, iragarri zuten etorbidea itxi egingo zutela ibilgailuen zirkulaziorako irailaren 19an. Orain, berriz, jakinarazi digute egun horretan garraiolariaren greba izango dela-eta, erabaki dutela kalea 19an itxi beharrean, irailaren 21ean ixtea. Hain justu ere, 08:00etatik 18:00ak arte izango dute etorbidea itxita.

Haur eta gazteendako jaia antolatu du Ibai Arte merkatari elkarteak

Gaur, egubakoitza, izango da jaia, Seberren, 16:00etatik 20:00etara. Denetarik izango da: puzgarriak, txirrista, cars-ak... Horrez gainera, bits-jaia ere egingo dutela jakinarazi digute. 18:00etan hasiko da jai hori.

Arrasateko dendarien elkarteak urtero antolatu ohi duen aisialdiko ekitaldien barruan kokatu beharra dago gaurko jaia.

Herritarren esanak kontuan hartuko ditu Udalak, Biterin

U.M.

Biteri aparkalekuaren gaineko aldea urbanizatzeko orduan, herritarrek egindako proposamenak kontuan hartuko ditu Udalak. Hain zuzen ere, sei proposamen egin dizkiote eta bost onartu ditu.

Joan den apirilean egin zuen Udalak proposamenak aurkezteko deialdia. Helburua zen herritarrei Udalaren asmoen berri ematea eta, bide batez, Udalak herritarren ekarpenak jasotzea.

Lehen esandako moduan, Udalak sei proposamen izan ditu. Bost Udalaren webgunean jaso dituzte; seigarrena, berriz, partikular batek idatziz aurkeztu du. Eta uztailearen 20an teknikoek eta hirigileek proposamenok aztertu eta gero, sei proposamenetatik bost onartzea erabaki du Udalak. Hain zuzen ere,

oraingo asteko Gobernu Batzararako onartu egin du proposamenok Biteri aparkalekuen proiektuari gehitzea.

Honako hauek dira: jarlekuak ipintzea; eta gainera, desmuntatu ahal izateko jarlekuak ipiniko dituzte, behar denean kendu edo lekuz aldatu ahal izateko. Umeendako jolasak ipintzea ere onartu du, eta gainera Udalak bermatu egingo du jolas nahikoa izango direla eta kalitatezkoak.

ZUHAITZAK ETA BABESLEKUAK

Horrez gainera, Maisu Arano kalearen inguruan zenbait zuhaitz landatzeko proposamena ere begi onez ikusten du Udalak. Ideia egokia iruditu zaio, baita ere, aparkalekuaren gainean izango den aterpeari biserak eranstea, euritik hobeto babesteko.

Eta zutabeak babestu egingo dituzte, egitura bera babesteko.

Txertoa hartzeko lekuak eta orduak

- Anbulatorioan: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 20:00etara. Eta zaharren egoitzetan eta auzoetako alkatetzetan honako egun hauetan:
 - Irailak 22, eguna: San Andresen (alkatetzak).
 - Irailak 23, egubakoitza: Abaroan.
 - Irailak 26, astelehena: Urribarrin (zaharren egoitza).
 - Irailak 27, martitzena: Santa Marinaran (zaharren egoitza).

- Irailak 28, eguaztana: Musakolan (zaharren egoitza).
- Zentro horietan 12:00etatik 13:00ak arte izango dira txertoak ipintzen. Irailaren 19tik azaroaren 4ra bitartean ipiniko dituzte. Guztira, 4.250 txerto ekarriko dituzte Arrasatera. Edozelan ere, gehiago behar izanez gero, posible da eskatzea. Anbulatorioko arduradun Edurne Marañonek esan digunez, normalean gehiago eskatu behar izaten dituzte.



Proiektua aldatu behar dutela-eta, kultura etxeko lanak gelditu, uztailea ezkerro

U.M.

Kultura etxe berria egiten dabilen inguruan mugimendurik ikusten ez zela-eta Udalean galdetu ostean, jakinarazi digute lanak berriro gelditu daudela. Uztailearen 28an geldiarazi zituztela esan digute. Arrazoiak: proiektua aldatu egin gura dutelako. Lau urtean dabilta kultura etxea egiten.

Asko kostatzen ari zaio Udalarik kultura etxe berria egitea. Batean bota ezin diren paretak dituelako, bestean proiektuan aldaketak egin dituztelako, atzerapen bat baino gehiago izan du, zoritxarrez, proiektu hark. Orain ere, obrak gelditu daude. Proiektua aldatu egin behar dutelako daude obrak gelditu orain. Eta bi arrazoiengatik aldatu behar dute proiektua: batek, frantziskotarrek Udalarik proposatu diotelako komentuaren beste zati bat Udalaren erabilerrarako izatea. Udalak hala egin gura du. Are gehiago, dagoeneko pentsatuta du komentuaren zati horretan Udaleko Kultura Saila ipiniko dutela.

Beste arrazoiak argizuloa da; oposizioaren haserrea piztu arazi zuen argizulo bera, alegia. Gogoratuko duzueenez, PSE-EE eta PPk salatu zuten kultura etxean argizulo bat egin dutela, inori ezer esan barik. Are gehiago, PSE-EEk adierazi zuen aztertzen zebilela kultura etxearen kasua epaitzietara eramatea, ustez, udal gobernua prebarikazioa egin duela. Bada orain, kontua da argizulo hori ipinita dagoen arren, ofizialki onartu barik dagoela. Beraz, eta legeak esaten duenari kasu eginez, derrigorrezkoa da aldaketa hori ere osoko bilkurak onartzea.

Gauzak horrela, jakinarazi digute burokrasia kontu horiek



U.M.

2002an hasi ziren kultura etxe berria egiten, frantziskotarren komentuaren zati batean.

Komentuaren beste zati bat eskaini dute; Udalak Kultura Saila ipintzeko erabiliko du

guztiak bete artean, kultura etxeko lanak gelditu izango direla.

DATORREN ASTE SANTURAKO

Edozelan ere, horrekin batera jakinarazi digute atzerapen dezente izan diren arren, aurreikusten dutela datorren urteko Aste Santurako bukatuta izan-

Aurreikuspenen arabera, datorren Aste Santurako bukatuko dute kultura etxe berria

go dutela Arrasateko kultura etxe berria.

PREBARIKAZIO KONTUA

Prebarikazio salaketari dagokionez, Paco Gartziak jakinarazi digu oraingo astean helarazi diotela joan den ekainaren 16an eskatu zuen txostena, kultura etxearen

Prebarikazioa izan den ikusteko zerbitzu juridikoak kontsultatuko ditu PSE-EEk

gainekoa. Atzerapen hori nabarmentzeaz gainera, zera esan digu: prebarikazioa egin dutelakoaren susmoa izaten jarraitzen duen arren, kultura etxearen gaineko txostena oso tekniko dela eta PSE-EEren zerbitzu juridikoek aztertu beharko dutela prebarikazioa izan den edo ez baieztatzeko.

LABUR

Guraso Eskoletan izena emateko epea: irailak 28

Udaletik jakinarazi diguteenez, dagoeneko zabaldu dute aurtengo Guraso Eskoletan izena emateko epea. Interesa duenak irailaren 28ra arteko epea du. Izena eman, berriz, honako lekuetan egin daiteke: Udaleko Prebentzio Sailean, prebentzio@arrasate-mondragon.net helbideak edo 943 77 09 00 telefonoan.

0 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako eskolak dira. Hainbat gai landuko dituzte: familia guraso eta seme-alaben arteko harremana, autoestimazioa, hezikidetzeta, sexualitatea... Eskolak euskaraz edo espainieraz izango dira, parte-hartzaileen aukeraren. Urrian hasi eta abenduan bukatuko dituzte.

Udalak lur azpiko edukiontzia ipintzeko asmoa du

Seberren, urtea bukatu baino lehen ipiniko ditu lur azpiko edukiontzia, urbanizazio-lanak egiten dabilzala aprobetxatuta. Eta datozen urteotarako baditu beste proiektu batzuk aurreikusita: Makatzenan (2006), Zerkaostetan (2006), Garibain (2006), Legargainen (2006), Urribarrin (2006) eta Santa Teresa-Agerren (2007). Makatzenari dagokionez, auzo hura berriro urbanizatzeko proiektuaren barruan sartu dituzte edukiontzia, beraz, litekeena da ipintzea. Zerkaostetan, Garibain eta Santa Teresan ipintzeko, ostera, diru partidak onartu beharko dituzte. Eta Legargainen eta Urribarrin ipintzekotan, promozio pribatukoek ipini beharko dituzte.

Arrasateko Yoga Elkartearen 25. urteurrena ospatuko dute

U.M.

Astelehenean, hilak 19 hasi eta zapatara arte Osasun Osoaren eta Bizitza Kalitatean Jardunaldiak eta Lantegiak egingo dituzte Monteron jauregian. Astean, arratsaldean dira ekitaldiok; zapatuan, goizez.

Hain zuzen ere, astean egingo dituzten eskolak 18:30ean hasiko dira eta zapatukoak, berriz, 09:00etatik 14:00ak artekoak izango da. Hala, astelehenean, *Estresa, Lasaketa eta Autoestimazioa* gaiak landuko dute. Martitzenean, *Elikadurak osatzen duen*

indarra landuko dute. Eguaztenean, *Psikoterapiaren bilakaera*; eguenean, *Ferekak: gozamenaren iturri* eta egubakoitzean, *Masajea eta osteopatia eta Biodantza, osotasuna eta osasun osoa* gaiak.

Lehen esandako moduan, hitzaldi horiek guztiak Monteronen egingo dituzte.

OSASUNAREN GAINEKO HITZALDIA

Berriz, zapatuan, hilaren 24an, hitzordua goizean izateaz gainera, Arrasateko Yoga Elkarteak Jose Luis Iñarra kalean duen egoitzan izango da jardunaldia. Oraingo honetan, goiz osorako

lantegi moduko bat prestatu dute. Honako ekitaldiak egingo dituzte: 09:00etatik 10:00etara, meditazio dinamikoa. 10:00etatik 11:00etara, ekialdeko teknikak (Yoga pasiboa), masajea eta osteopatia. 11:00etatik 12:00etara, Biodantza saioa egingo dute. 12:00etatik 13:00etara, Elikadura osasuntsuaren gaineko galdarak egiteko aukera izango dute eta azkenik, 13:00etatik 14:00etara, fereken lantegia egingo dute.

Bai zapatuan, zein aste barruan egingo dituzten hitzaldietara zein lantegietara adituak etorriko dira, kanpokoak zein hemengoak.



GOIATZ ARANA

Arrasaten 90 bat ikasle ditu Jose Luis Armendiak sortutako Yoga Elkarteak.

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 23
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

ZAPATUA, 24
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15

DOMEKA, 25
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99

ASTELEHENA, 26
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

MARTITZENA, 27
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUAZTENA, 28
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15

EGUENA, 29
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99

EGUBAKOITZA, 30
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERITXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

Arrasate
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (elebiduna)	Domeka 11:00 (elebiduna)

OHARRAK

URIBARRIKO ERRETIRATUENDAKO OHARRAK
Datorren zapatura arte, hilak 24, egongo da zabalik Asturias aldera egingo duten irteerarako izenemate epea. Urriaren 10ean irten eta 5 eguneko izango da bidaiak. Prezioa: 287 euro. Informazio eta xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo elkarteke bulegoetara.

1943AN JAIOTAKO EMAKUMEAK
Bazkaria egin gura dute 1943an jaiotako emakumeek urriaren 8an. Meza entzun ostean egingo dute bazkaria Musakolako ostatuan. Izenematea 20 euro da eta Muruamendiaraz gozodendara jo beharko dute interesa dutenek.

ASTE KULTURALA FAGORREN
Hainbat hitzaldi antolatu dituzte datorren asterako. Martitzenean, 16:30ean, Real Sociedad eta euskaren gaineko hitzaldia egongo da San Andresko lantokian eta 22an bertsolaritzaren gainean berba egingo du Asier Iriondok, 14:30ean, Garagartzan.

MUGIKORTASUN ASTEA
Bihar *Gidatzeko era efiziente-ekonomikoa* ikastaroa helduen hezkuntza zentroan, 10:00etan.

AEDrenAGENDA

URRIRAKO LANEAN
Urriaren hasiko dira AED Euskara Elkarteak udazkeneko agendarekin. Irailean zehar joango dira ikasturte berrirako hitzorduetan lotzen.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Ines eta Naiara nagusi trikitilari gazteetan

Artean 13 urte besterik ez zutela, Elorrion ospatu zen Trikitilari Gazteen Txapelketako irabazleak izan ziren Ines Osinaga eta Naiara Okina, bigarren aldiz gainera. Orduetik hona folk munduaz aparte ere bestelako proiektuetan ibili da bikotea, Ekon taldean, esate baterako.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Loti”



— Gure txikixa lotixa da demasa ta eskerrak orri. JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Pantaila handiko izarren distira, besteak beste, asteburuan Asteko Gainbegiratu-n

Donostiako Zinemaldiaren 53. edizioa hasi dela-eta, *Obaba* filmean parte hartu duen Bergarako Mikel Laskurain aktoreak astean Arrasate Irratian kontatutakoak berreskuratuko ditugu, asteburuko hitzorduan. Ez da izango, baina, *Asteko Gainbegiratu-n* aurkituko duzun zine-elkarrizketa bakarra; izan ere, Elgetan ere izan gara, Iturri baserrian hain justu, egunotan errodutzen ari diren *El bosque de las sombras* filmaren gainean galdezka. Antonia Arantzabal, argazkian, Iturri

baserriko bizilagunak, ez ditu samur ahaztuko egunotan bizi dituenak; kontatutako guztiak berreskuratuko ditugu zapatu zein domekan. Irailean asmo berriei ekiteko garaia izaten dela-eta, Ainhoa Uriarte arrasatearrak datorren astean Guatemalara joango dela kontatu digu bidaien tartean. Maiatza bitartean izango da Guatemala iparraldeko Santa Maria de Tzejá komunitatean, besteak beste, liburutegi bat eraikitzea dute helburu.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 10	13 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 9	31 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	64 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 7	24 °C 14 °C 14,4 l/m²
Eguena, 8	23 °C 16 °C 2,4 l/m²
Egubakoitza, 9	31 °C 15 °C 2,9 l/m²
Zapatua, 10	24 °C 15 °C — l/m²
Domeka, 11	20 °C 13 °C 41,2 l/m²
Astelehena, 12	20 °C 15 °C 2,2 l/m²
Martitzena, 13	21 °C 16 °C 0,9 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA

ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratu**. Antonia Arantzabal, *El bosque de las sombras* filmaketa; Mikel Laskurain, *Obaba* filmeko aktorea; Ainhoa Uriarte, bidaien tartean; Lorategia tartea, tulipanak...

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratu**.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
10:00-12:00 **UDA GIROAN**
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarizketak
Kiroiak
Lorak eta landareak
Merkatu txikia
Bidaiak
Zorion agurren tartea (Esku hartzeko, 943 71 17 31).

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**

14:00 **UDA GIROAN (errep.)**

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Egon dien akzidentiek ikusitte, bardin hartuko dozu hegaldi merkiek?



EMI ETXABE
Etxekoandrie



ARANTZAZU URIBESALGO
Langillie



ELENA OÑATE
Langillie



JOSEBA URTZELAI
Ikaslie



SEBASTIAN ERRUZO
Langillie



JUAN LUIS URIBARREN
Langillie

Neuk pentsetan dot kontuen hartu biherko litzakeen gauze dala. Ez dot askorik biaketan, baiñe karreterako seguridadien pentsetan dou, eta abioiekue be kontuen hartu biher da.

Neuk bardin-bardin ibilliko dittut. Aurten pasau da akzidente asko egon dala, baiñe kotxien be mordue egoten die, eta iguel-iguel ibiltten gare kotxien, hortan... Hegaldi merkiek ondo dauz.

Akzidentien kontu horrei ez dutzet kasu haundirik egin. Holakuek egon die, dauz, eta egongo die, noixien behin pasetie normala dalako. Holako hegaldiek hartzen dot neuk be.

Ez naz askorik ardureketan. Aurten Irlandara juen naz holako hegaldi merkie hartute, eta trankil-trankil juen gitzen. Konpañien ardurie da, baiñe toketan daniien, ba... tokau egin da.

Neuk normalien hegaldi normalak hartzen dot, merkiek ez. Egixe esateko, baiñe, gutxitan ibiltten naz abioien. Hori bai, hartu biher dotenien seguridadie emun daixela.

Neuk abioie gutxitan hartzen dot, baiñe pentsetan dot ondo dauela hegaldi merkiek egotie. Hori bai, kontuen hartu biherko leukie ze kondiziñotan dabitzen horreik abioi horreik lanien.

USTEAKUSTE

'Babes' ofiziala


Badut lagun bat tabernan lan egiten duela. Halakoetan ohi denez, lan ugari egin arren, ez du larregi irabazten; eta horren ondorioz, zailtasunak izaten ditu bizitzako zenbait arlotan; esaterako, etxea alokatzeko edo erosteko orduan. Orain, lagunekin bizi da, taldean, bakarrik ezin duelako alokairua ordaindu. Etxebiden ere izena eman zuen, baina herenegun jakin nuen baztertu egin dutela, ez delako gutxieneko soldatara iristen eta horren ondorioz, ezin duelako Etxebidek ematen dituen babes ofizialeko etxerik ordaindu.

Orain arte, babes ofizialeko etxeen defendatzaile izan naiz eta onuragarri direla uste nuen. Oraindik ere horixe uste dut, batez ere, etxe librean egoera zein den jakinda. Baina, hala-ber, uste dut gure gizarte aberats hau gidatzen duten gobernu eta erakundeek babes handiagoa eman beharko liekeela, beharrak dituzten guztiei. Bai, pentsatuko duzue, oso behartsuak direnei normalean etxeak-eta utzi egiten dizkiete. Baina ez bazara horren behartsu, baina era berean ez bazaizu soldata iristen gutxieneko behar duin batzuk asetzeko? Gazteak, ez horren gazteak, alargunak, erretiratuak... oraindik asko dago egiteko askorendako horren aberatsa eta emankorra den gizarte honetan.

UBANE MADERA

TXALOAKETATXISTUAK

HARRERA



TXISTUAK UDALETXKO TELEFONO-GUNEA Buruhauste bat baino gehiago eman die udaletxean telefono-guneak, eta azkenean konponketak egin dituzte telefono sisteman. Lehengoa zaharkituta geratu bazen ere, berriak oraindik arazoak ematen ditu eta hainbat irakurlek honako kexa hau helarazi digute. Kontua da udaletxera deitu eta pertsona bat baino gehiagorekin berba egin gura izanez gero, behin baino gehiagotan deitu behar dela udaletxera. Hau da, ezin dute deia telefono batetik bestera pasatu, horrek eragiten dituen eragozpen guztiek.

ASTEKODATUA

4.250

TXERTO BANATUKO DITUZTE GRIPEAREN AURKA

Astehenean hasiko da aurten go gripearen aurkako txertatze kanpaina. Txertoa jasoko dutenetatik gehienak 65 urtetik gorakoak izango dira, baina gaixotasun kronikoak dituztenek ere hartuko dute bakuna. Azaroaren 4an amaituko da kanpaina.

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



Autopista

Oraingo urteko udak Donostiaren hurbiltzea ekarri digu. Bai, autopista Arrasateraino heldu da, eta horren ondorioz Donostiara joateko denbora murriztu egin da. Donostiara eta Gasteizera joateko denbora ia parekatu egin dira.

Orain denbora mailan hurbilago dago baina prezio ertainean. Donostiara joan eta etortzeko ordaindu beharreko 10 euro paseak, dirutza txiki bat da. Egia da gure inguruko autopista zatia dela zuzenena, seguruen... baina ez merkeena. Hau guztia ingurugiroari eginikoak kontutan izan gabe.

Elgoibar edo Beasainera joan behar genuenean autobidea edo autopista hartzeko, eta nire Donostia inguruko ezagunei gure hiriburu naturala Gasteiz zela esaten nienean, ez ninduten ulertzen. Medikuearengana, erosketak egiteko eta abarretarako Gasteizera joatea ez zuten ulertzen. Autobus ordutegiek

ere horretara laguntzen dute, batik bat maiztasunarengatik.

Autopistarena istorio zaharra da. 1971n argitaratutako Euskal Herriko errepide mapa batetan agertzen da proiektu hori. Ordutik hona euri asko egin du. Eta seguru ere sustoren batzuk aurreratutako ahal izango zirela gauzak bere garaian eginez gero. Badakit atzeratzeak, teorien teknologia hobekuntza dakarrela eta horrek bidea hobea izatea lor dezakeela.

Ez dakit zenbat pertsonak erabiliko duten autopista,

baina asko izango direla uste dut (unibertsitatera eta inguruko lantegietara joateko batik batik hasiera batetan, Gasteizera joateko, berandua-go). Haietako batzuek Uribe auzotik jarraituko dute beren bidea. Hor ere badago plan bat, tunelarena hain zuzen. Autopista berandu etorri arren, espero dezagun beste hobekuntzak ez egotea hainbeste denbora planotan soilik.

"Autopista berandu etorri arren, espero dezagun beste hobekuntzak ez egotea hainbeste denbora planotan soilik"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Ubane Madera

ERREDAKZIOA
Xabier Urtzelai
Jon Bereizibar

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Bereizibar
Amaia Mundifiano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Bereizibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



ASTELEHENEN GOIENKARIA

Ondarroako Mendi Elkartek ardoa eta perlita pintxoak banatuko ditu Besaiden.

MENDIA/ Oroimen Eguna Besaiden, domekan

Oroimen Egunarekin batera, monumentuak ere 50 urte

XABIER URTZELAI

Domekan ospatuko dute Besaiden Oroimen Eguna. 1955ean, monumentua eraikitzearekin batera omendu zituzten lehenengoz mendian hil ziren euskal mendizaleak. Bi urte lehenago Mont Blanc-en hil ziren bost euskaldunen zorigaiztoak bultzatuta hasi ziren Oroimen Eguna ospatzen.

Eta domekan egingo dute ospakizun horren 50. urteurrena. Hau da Besaide Mendi Elkartekoek prestatu dutena: 10:30ean txistularien eta txalaparta joleen doinuekin elkartuko dira mendizaleak monumentuaren inguruan. 11:00etan emango dute meza, eta meza eta gero Arantza Jausoro Euskal Herriko mendi federazioko presidentek berbaldia egingo du. 12:00etan, berriz, dantzariak eta txistulariak izan-

go dira eguerdi partea girotzen, eta horrekin batera, Ondarroako Mendi Taldeak ardoarekin batera perlita pintxoak banatuko ditu; jasotako dirua Kilometroak jaierendako bideratuko dute.

MONUMENTUAK ERE 50 URTE

Monumentua egitearekin batera hasi ziren Besaideko Oroimen Eguna ospatzen. Eta, lehenengo urteurrenarekin batera inauguratu zuten Besaideko iturria. Historia horren gaineko gainbegi-

Mont Blac mendian izandako istripuak bultzatuta hasi ziren Oroimen Eguna ospatzen, 1955ean

ratua egingo du Antton Iturritzak hurrengo Pyrenaica aldizkarian. Eta ospakizunen barruan, datorren egunean, hilak 22, *Agur Everest* filma emango dute Amaia Antzokian.

GIPUZKOAKO BIRA, IRAILAREN 25EAN

Oporretatik bueltan, Besaide Mendi Elkartek gertatuta ditu Gipuzkoako Birako hainbat etapa. Datorren mendi irteera irailko azken domekan egingo dute, hilaren 25ean. Urbia aldera egin eta handik Marisarako bidea hartuko dute. Horretarako, Elgeako mendilerrotik, Urdingainetik eta Hiruerreketatik pasako dira, Gatzaraino iritsi arte.

Besaidekoek aurreikusten dute zortzi ordu inguruko mendi zeharkaldia izango dela. Izena emateko egunak irailaren 19a, 20a, 21a eta 22a izango dira, 19:30etik 20:30era, Besaideren egoitzan.

Mondraren bide bera jarraitu gura du Ointxe Arrasatek

X.U.

Arrasateko futbol taldeak izan duen denboraldi hasiera ederra errepikatu gura du Ointxe Arrasate Saskibalo Taldeak. Asteburuan hasiko dute Liga Txapelketa, etxeko lanak ondo eginda.

Aurre-denboraldian egindako lana, baina, bihar arratsaldean utzi gura dute agerian Gorka Zurututzaren mutilek. Iturripen estreinatuko dute denboraldia (18:00), Tabiraco Baque taldearen kontra.

Gauza handirik aurreratu barik, taldeak orain arte gustura egoteko moduko lana egin du —joan den astean 70-78 gailendu zitzaion Atletico San Sebastian taldeari— eta taldeko kapitain Jagoba Gamarrak txapelketa has-tearekin batera gura ditu irabazi lehenengo puntuak. Horrekin batera, taldean izan diren aldaketak eragin txikia izango dutela espero dute. Hiru jokalaririk joan eta lau etorri dira Ointxe Arra-

satera. Hala, gazte mailako Aitorrek, Jagobak, Barberenak eta Antxonek beteko dute Ugutzek, Jokinek eta Ancinek utzitako hutsunea.

MONDRA ORDIZIARA

Sailkapenean aurrealdean dabil-tzan bi talde izango dira asteburuan nor baino nor gehiago. Hirugarren postuan dagoen Ordiziarren zelaira joango dira arrasatearrak bihar (16:30), joan den astekoa errepikatzen asmoarekin.

Izan ere, etxafuegoak botatzen hasi barik, Mondrak itxura ezin hobea erakutsi zuen Zarautzen kontra (2-0). Ligako oilarretako bat izan zen Atxabalpen, baina zarautzarrek Hirugarren Mailara igotzeko lehenengo trabarekin egin zuten topo: defentsan txukun, joko aldaketa ikusgarriak... Lehenengo zatia behin eta berriro errepikatu behar den horietakoa izan zen. Ea horrelakoetara ohitzen garen, Atxabalpen zaleek aspaldi ez moduan gozatu zuten-eta.



ASTELEHENEN GOIENKARIA

Ointxe Arrasate eta biharko kontrario Tabirako, joan den denboraldian Iturripen.

LABUR

Arrasate Errugbi Taldeak Eibarren jokatuko du lagunarteko hiru taldeko txapelketa

Zapatuan (16:00), Unben jokatuko dute Eibarrek, Zarautzek eta Arrasatek lagunarteko hiru taldeko txapelketa. Hiru talde horiek elkarren kontra jokatuko dute denboraldian zehar, eta biharko proba talde bakoitza zelan dagoen ikusteko baliagarria izango da.

Lilura

OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa. Esku-poltsak, eskularrutak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

Bañez dokorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

MODAYANG

Erropa, zapatak eta osagarriak

Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.

Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 68.
URRETXU.

Artistaren alderdi poetikoari helduko dio domekan 'Otehitzari biraka' antzezlanak

JON BEREZIBAR

Jenio konplexua bezain oparoa izan zen Oteitza, landu zituen alor guztietan. Oraingoan olerkiak izango dira ardatz Kukai eta Tanttaka konpainiek domeka arratsaldean aurkeztuko duten obran.

Oteitzaren legatuari alborapen berria gauzatu gura dio Kukai dantza taldeak eta Tanttakak elkarlanean sortutako obra horrek. *Otehitzari biraka*-n, poesiaren bidetik heldu nahi diote Orioko jenioaren emariari, hark horrenbeste aldiz aldarrikatutako euskal arimaren ikerketa estetikoahaztu barik. Horretaz arduratuko dira Jon Mayak sortutako koreografiak. "Noiz arte!" haserre oihukatu zuen artistaren figura indartsura hurbiltzeko salakera hutsa baino gehiago da.

Hitzak ardatz, bizitzan galdutako denbora berreskuratzeko bitarteko gisa ikusten zuen Oteitzak poesia, eta olerkigintzan piztutako garrek argituta ikusiko dugu *Otehitzari biraka* lanean eskultorearen akordua.

Mireia Gabilondo bergararrak hartu ditu bere gain zuzendaritza eta gidogintzaren ardurak, baina eskura izan ditu Mikel Laboa, Pello Zabala eta Joxe Angel Irigarainen aholkuak ere. Musikari dagokionez, berriz, Bingen Mendizabalen esperientziara jo du zuzendariak, kontakizunaren lagungarri. Horrela, osagai horiekin, hitzaren



Bideo proiektzioen bitartez ekarriko dituzte Oteitzaren irudiak gogora.

beharraz, haurtzaroz, artearen alboratzeaz, hezkuntzaz, isiltasunaz eta haren emazte izandako Itziarren heriotzaz mintzatu dira Kukai eta Tanttaka taldekoak.

ANTZERKIA ETA DANTZA

Oteitzaren poesiaren arimari hezurra eta mamia emango dizkiote Jon Mayak gidatuko dantzariak. Gainera, dantza eta antzerkia uztartzearen lan horre-

Jon Mayaren koreografiak emango diote gorputza Oteitzaren poesiari

Hitzak dira ardatza, artistak bizitako berreskuratzeko aldarrikatzen zuen eta olerkigintza

tan ez dira hasiberriak Kukai eta Tanttakakoak. Aurretik, 1937, gogoaren bidezidorretatik obran, bien eskutik Espainiako gerraren saminak eraman zituzten taula gainera, eta arrakasta hark, hain zuzen ere, Donostia Antzerki Saria ekarri zien 2003an.

Era berean, euskal dantza tradizionala ikuspegi berri baten aurrean kokatzen du ikuskizun horrek, Bingen Mendizabalen musika sarkorarekin, Rafa Rueda eta Mikel Urdangarin lagun dituela. Indarra eta sentsibiltatea hurrenez hurren, euskaldunen arima aurkitu zuelako ustea zuen jenioa berpizteko, hil zela dagoeneko bi urte bete berriak direnean.

LABUR

Pintura eskoletako epea astelehenetik aurrera zabalik

Datorren astelehenean hasiko da, egubakoitzera bitartean, Monterron kultur etxean ematen diren pintura eskoletarako izenemate epea. Eskolei, berriz, hil amaieran ekingo diete, Amaia Bengoa, Arte Ederretan lizentziaduna, irakasle dela. Matrikulazioa esandako egunetan, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara egin ahal da eta 115 euro izango da prezioa, irailtik ekainera bitarteko ikasturterako.

Gehienez ere 20 laguneko taldea osatu gura dute eta gutxienez adina 8 urte izango da. Lanegunetan 17:00etatik 20:00etara izango da ordutegia eta zapatuetan 10:00etatik 13:00ak arte. Informazio gehiago izan gura duenak kultur etxean izango du argibide guztien berri.

'La guerra de los mundos' asteburuan Amaia antzokian

Tom Cruise aktore nagusi eta protagonismo osoarekin, estralurtarren jazarpenaren aurka ibiliko da bere familia babesteko, Orson Wellesen irrati nobelaren *remake* honetan. *Minority Report*-en ere batera lan egindakoak dira Spielberg eta Cruise, oraingoan zuzendariaren gai nagusi bati heltzeko gainera, estralurtarren balizko erasoaldi bat. Kritikak, hala ere, ez dira oso onak izan.

Eli Mendiaren margoak egongo dira ikusgai Harresi aretoan hilabete amaierara arte

J.B.

Natura aurrez aurre eta kolore biziarekin, margolariaren begirada artekari bakarra dela. Paisaiak, loreak eta urtaroak hartzen dituzte Eli Mendiaren margoek aitzakia moduan, eta udagoien esze-

nak aurkeztuta ere, bizitasuna adierazten dute. "Beti aukerazten ditut kolore biziak, urdinak, gorriak... Oporretan nagoenean aprobetxatu eta beti bertatik bertara margotzen ditut paisaiak", diosku Elik. Zumarragakoa izatez, ez da oraingoa lanak jendau-


rrean erakusten dituen lehen aldia, aurretik Urretxun eta Elizondoko aretoetan ere izan ditut eta margoak ikusgai. Hain zuzen ere, azken 3 urteotako lanak erakutsiko ditu Harresi aretoan, hil amaierara arte. Gehienak margoak dira, baina grabatuak ere

badira erakusketan. Margolaritza zaletasun modura hartzen badu ere, 11 urte ibili da margolariekin ikasten eta azkenaldian grabatuekin ere ausartu da. Izan ere, belar-metetan oinarritutako grabatu seriea ere aurkeztuko du Harresi aretoan.

Asteleheneetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETA

Gorka ileapaindegia peluqueria

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Maritxu egunean
zoragarri egon zaitezten...

Lore

Olarte kalea 10 Tel.: 943 79 52 50
ARRASATE

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa
- Solariuma
- Makillaje

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BOTEPRONTUEN

Maria Jesus Martin

ETXEA BAZARRA

XABIER URTZELAI

Hamar urte egin dau denda horrek Maala kalien, eta Maria Jesus oin dala sei urte hasi zan bertan lanien. Elkarrizketie egindde, agudo bukatu doule esan dau, eta gutxik esaten daue hori. Gustora egon dan seiñale, behinguatik bada be.

Etxea denda bakar da?

Neuk Mondraguen egitten dot lan, baiñe Aretxabaletan, Vittorixan eta Bilbon dauketzu Etxea denda gehixau.

Eta, ze saltzen dozue bertan?

Hau bazarra da, hortan, danetik saltzen dou.

Nundik ekarten dozue horrenbeste gauza?

Jefie arduraketan da lan hori egittiez. Ferixetara jueten da, eta kantidade haundixetan erosten dau produktuek: Madrillera, Bartzelonara... Txinara be jueten da gauzak eroster.

Holako bazar baten, ze izen leike konpra on bat?

Gauza asko erosi zeike hamen, eta prezio onien. Garbiketako produktuek, adibidez, oso kalidade onekuek die, eta prezio oso onien dauz. Baitte sukaldarako gauzak be: zartakiñak, kazuelak... Horrekin batera, erregaluek, eskolara-ko gauzak...

Oferta batzun barri emuteko aprobetxauko dou.

0,50 eurotik hasitte gauza mordu daukou hamen. Eta oferta batzuk: gizonezkuen alkondarak 5 eutotan, mutikuendako kamisetak 3 eurotan, nesken kamisetak 5 eurotan, umiendako konjuntuek 5 eurotan...

Eta ze da garestixena?

Minbrezko zestuek, edo mueliek. Baiñe horreik be ofertan daukou. Lehen 60 euro balixo euen eta oin %50eko deskontue daukou.

Ze da zuon laneko gauza txarrena?

Neuretako lan honek ez dauko ezer txarrik. Jentiekien tratuen egitten dou, lana garbixe da, produktuek ordenetan dotenien gustora ibiltten naz... Ez dauket iñungo



"Mondraguen azeleraute bizi garela esango neuke, eta neuk lasaixau bizi gureko neuke"

problemarik; gustora egitten dot hamen lan.

Eta onena?

Ez neuke jakingo ze esan, dana. Inportantie da ordenakin egittie lan; produktu bakotxa nun juen biher dan, gauzak gastetan doiezen neurrixen barriri be ipiñi, klientiek eskaketan dauena emun... Lan politte da.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Aparkalekuek, hori argi dau.

Eta ze dauko ona?

Ba, ez neuke jakingo esaten. Egixe esateko, herrixe ez jat askorik gustetan, neurri haundi baten erritmo haundixen bizi garelako. Oin dala hoge urte etorri gitzen

"Mondragueko dendiaz batera, Aretxabaletan, Vittorixan eta Bilbon dau Etxea"

Extremaduratik, eta hamen lanerako bizi garela esango neuke. Azeleraute bizi gare hamen, eta lasaixau bizi gureko neuke. Egixe da, baiñe, gauza asko daukoule hamen: zerbitzuek, medikuek...

Ze falta jatzu zeuri?

Diru apur bat, eta lasaixau bizi izetie. (Barre)

Eta ze dauketzu sobran?

Sobran... pazientzia.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

El señor de los anillos / El Código da Vinci da leidu doten azkena / Manolo García.

Kapritxo bat.

Afaritxo bat edo bazkaritxo bat egittie, trankil-trankil.

NIREBIDAIAHURA/ Imanol Soriano

Eskoziara / 2005eko udan.

Joan den astean Skye uhartean utzi genituen Arrasateko bost lagunak: "Sconser aldera egin genuen handik, gero Raasay uhartera joateko. Kanpin denda erosi genuela aprobetxatuta, bertan egin genuen lo. Hango parajeei dagokienez, aldaketa handirik ez: leku lasaiak, esplotatu gabeak eta paraje eder gehiago. Mendian ibiltzeko leku paregabea da Eskoziara, baina guk ez geneukan oinetako aproposik. Hori bai, eguraldiari dagokionez, denetarik izan genuen; euria egiten zuen, eguzkia azaltzen zen gero... Baina, egia esateko, euri zaparrada galantak ere harrapatu genituen, Obanen, adibidez". Obanen ere kanpin denda egin zuten lo: "Han ere ahalegindu ginen aterpetxeren batean lekua topatzen, baina guztiak zeuden beteta. Orduan ere kanpin denda barruan igaro behar izan genuen gaua. Noski, lo egiteko zakua baino ez geneukan; ez koltxonetarik, ez esterillarik... Bizkarreko minarekin ibili ginen".

Eta Obanetik Stirling-era, nahiz eta iritsi ez: "William Wallace-n monumentua ikusi gura genuen Stirlingen. Lehenago, baina, Glasgowera joan ginen, eta asmoa zen itzulera-ko bidean Stirlingen geldialdia egitea. Glasgowera, baina, gure asmoak erabat aldatu ziren. Garagardo bat hemen, beste garagardo bat han... Heavy musika jotzen zuten areto gela bat aurkitu genuen, eta agur William Wallace... Beste batean izan beharko du".

Eskoziara barrena kilometro mordo egin eta gero, Edinburgora itzuli ziren Imanol eta lagunak: "Abuztuan giro paregabea egoten da hiri horretan, goraino egoten da. Kale antzerkiak, jaialdiak, musika... Hantxe egin genituen azkeneko hiru egunak, eta hiria ezagutzearekin batera parrandaren bat edo beste egiteko aprobetxatu genuen".

XABIER URTZELAI



Eskoziako kostalde malkartsua.



"William Wallace-n monumentua ikusi gura genuen"

"Baina Glasgowera joan eta 'galdu' egin ginen"

IBARRAUNDI MUSEOAREN HITZALDIAK

Gure aztarnen bila

TOKIA: Ibarraundiko hitzaldi aretoan, 20.540 Eskoriatza

ORDUA: Arratsaldeko 19:00tan.

TELEFONO ZKIA: 943 715 453



HIZLARIA: Peio Zabala
GAIA: Euskaldunak eta sinismenak (mito, errito eta legendak)
NOIZ: Irailak 20

HIZLARIA: Félix Ares
GAIA: Unibertsoaren sorrera
NOIZ: Irailak 29

HIZLARIA: Álvaro Arrizabalaga
GAIA: Euskal Herriko historiaurrea: Lezetxiki.
NOIZ: Urriak 6





HERRIKO GAZTETXOENENDAKO ERE AMAITU DIRA OPORRAK

Oporraldi luzean gura beste lo egin, gura beste jolastu eta barrabaskeria bat baino gehiago egin eta gero, Arrasateko neska-mutikoei ere iritsi zaie ikasturte berria hasteko ordua. Nagusitxoak direnak nahiko pozik, udan ikusi ez dituzten lagunekin egon, gurasoak ordu batzuez bistatik kendu, etxean ez dituzten jostailuekin jolastu... Baina eskolara joatea zer den ere ez dakiten asko ibili dira oraingo astean negar eta negar. Diotenez, poliki-poliki eman behar den pausoa da, eta lehenengo egunetan gurasoak ondoan egotea komeni da, ordu gutxi batzuk ez bada ere. Seguru egon, bigarren egunerako bat baino gehiago egongo dela etxean baino gusturago.



IBAI ETA ITSASO EZKONDUTA, ZEHARKAKO FLAUTAREN DOINUEKIN LAGUNDUTA

Joan den egubakoitzean ezkondu ziren Ibai eta Itsaso, Arrasateko udaletxean. Eta, zeremonian baiezkoa eman eta gero, Herriko Plazan elkartu ziren guztiak ospakizunekin jarraitzeko. Bikotearen omenez, *Zabo*-ren koadrilakoek hainbat sorpresa zituzten gertatuta. Batetik, Argider eta *Bolu* ibili ziren Aurreksua dantzatzeko daukaten abilezia erakusten. Atzean zituzten,

baina, *Pertx* eta *Zarre*, txalaparta doinuekin erritmoa jartzen. Askoren ustez bereziarena, baina, Landerrek zeharkako flautarekin emandako ukitua izan zen. Kontuak kontu, Garagartzako Arteaga jatetxean bazkaldu zuten -mutilaren koadrilakoak izan omen ziren dantzan gehien egin zutenak- eta dagoeneko Ibai eta Itsaso Malta aldean izango dira. Lagunen partetik, zorionak!!!



EUSKALTELEK ERE 'DEABRUA' IZAN DU ANIMATZEN VUELTAN

Lankide bat Asturias aldean izan da asteburuan, eta han ere lana eman diote. Covadonga inguruan zeudela argazkiko artista koadrila horrekin egin zuen topo. Eta Asturias aldera zertara? Ba deabruz jantzita dagoen Juanjoren omenez ezkon aurreko parranda egitera. Cangas de Onisen egin zuten parranda hori, eta Vueltako etapa bat ikusteko aprobetxatu zuten. Claudio Chiappucciren jarraitzaile amorratua zen oraindik ere Tourrean ikusten dugun *deabru gorria*. Eta, aurtengo Vueltan, Euskalteleko mutilek *deabru laranja* izan dute maskota: Juanjo. Garbiñerekin ezkonduko da hemengo deabrua, eta Kanada, New York eta Dominikar Errepublikara joango dira ezkon bidaian. Koadrilakoen partetik, zorionak, bikote!!!

Uarkape jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak,
eguneko menuak, karta.

Maritxu egunerako dena prest!
Ondo pasatu!!

Otolora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkia

ELKARRIZKETA

JONE ETXEBARRIA/GAZTE-DINAMIZATZAILEA

“Gazteek aisialdia eurek gura duten moduan antolatzea da helburua”

JON BEREZIBAR

Joan den urtarrila ezkerro Zigorrolako gazte txokoan dinamizatzaile dihardu Jonek, 12 eta 16 urtera bitarteko gazteekin lanean. Martitzenean ireki zituzten gazte lokalek ateak. Gazteei aisialdiaz baliatzen erakustea da helburuetako bat.

Zertara joaten dira herriko gazte lokaletara gazteak?

Arrasaten hiru lokalen bitartez bideratzen dugu zerbitzu hau: Erguinen, San Andresen eta Zigorrolan, eta bertan antolatzen ditugu ekintzak. Ikastaroak, jolasak, irteerak, hizketaldiak... Ez dira programazio itxiak eta datozen gazteen proposamenetarako zabalik gaude. Araudi eta programazio zurrunik ez dago eta gazte txoek eurek egin ahal dituzte gogoko dituzten plangintzak. Askatasun guztiarekin. Moldatzeko gertu gaude.

Gazteei zuzendutako eskaintza gabezia osatu gura duzue zelanbait?

Txatxilipurdik bi bidetatik jorratzen du alor hori. Ludotekak leudeke lehenengo, 2tik 11 urtera arte, eta gazte lokaletan 12tik 16ra bitarteko gaztetxoekin egiten dugu lan. Batak haurtzaindegia eta, batez ere, haurrei zuzendutako zerbitzuak ditu, eta gazte lokaletan lagunartea eta harremanak lantzen ditugu, oro har. Ez daukagu izenmaterik, ezta bete beharreko araurik ere, eta gazte guztiei dago zabalik.

Auzoetan bakarrik zaude. Arrazoi berezirik?

Ez. Izan ere, erdialdean gazte lokala irekitzeko asmotan gabilta; Udalari, behintzat, behin baino gehiagotan egin diogu eskara. Erguin, San Andres eta Zigorrola *kaletik* nahiko urrun daude eta gazte asko dago erdialdean gazte lokalera joango zitekeena. Gainera, adin tarte horretan askok ez dute egon edo elkartzeko lekurik. Berezko lokalik ezean, askotan bestelako aukera gutxi izan ohi dute. Gainera, egoera ez da berdina 12 urteko batendako edo 16koarendako; eta kalean ez dago eurei zuzendutako herri mailako zerbitzu berezirik.

Beraz, zeintzuk lirateke helburu zehatzak?

Orokorrean esanda, adin horretako gazteei kalitatezko aisialdirako ekintza hezitzaileak eskaintzea. Horrekin batera, euskararen normalizazioa, balioen sustapena, informazioa eta gizarte-sentsibilizazioa, sexualitatea, drogak... Identitatearen eraikuntza eta euren heziketan eragiten duten gaiak jorratzen ditugu. Gainera, horren guztia-oren osagarri, gazteei arazoetan



J.B.

“Zalantza asko pizten zaizkie gaztetxoei eta gu beti entzuteko gertu gaude”

lagundu eta elkartzasuna ematen diegu, ahal dugun neurrian. Beste bide batetik ere, auzo integrazioa lantzen dugu hainbat ekintzaren bitartez.

Dinamizatzaile izateaz gainera beste alor batzuk ere lantzen dituzue?

Gu, lehenik eta behin, dinamizatzaileak gara eta gure bete-beharra ekintzak proposatu eta antolatzea da; begirale lana-edo. Aldi berean, beste alderdi bat ere lantzen dugu: eurak euren aisia antolatzea bultzatzea, hori da eta helburua, gazteek ardurak hartzea. Horien bien artean legoke guk egiten dugun bitartekaritza lana: hitz egin, informatu, orientatu... Heldutasunaren atartean daude adin horretan eta oso

“Kalitatezko aisialdirako eskaintza hezitzailea antolatzea da gure helburua”

kontuan hartzen dugu guk hori. Lortzen duzue gaztetxoekin era irekian komunikatzea?

Bai, nahiz eta batzuetan kostata izaten den. Zalantza asko pizten zaizkie bizi dutenaren gainean eta askotan gurekin arintzen dituzte barrenak; entzuteko gertu gaude beti. Egun zailagoak ere badaude, eta neskak sarri irekiagoak izaten dira. Mutilak zakarragoak izaten dira eta askotan harrotu ere egiten dira. Hala ere, nik oso gustuko dut lana, ze askotan etxean galdetzen ausartzen ez diren gauzak kontatzen baitizkizute, eta hor laguntzeko egotea gustatzen zait. Gu ere gazteak izanda, baina, adarra jotzen saiatzen dira behin edo behin, ez pentsa!

LABUR

Aisialdirako begirale ikastaroa antolatu du Txatxilipurdik eskualdeko elkarteekin batera

Debagoieneko euskara elkarteek, Txatxilipurdi ere tartean dela, aisialdirako begirale ikastaroa antolatu dute urritik maiatzera bitartean. Aurki alor horretan jarduteko nahitaezkoa izango da titulu hori; hori dela-eta, Jaurilaritzak homologatutako ikastaroa antolatu dute.

Guztira, 300 ordu baino gehiagokoa izango da ikastaroa, 200 teoriko eta 120 praktiko. Azken horiek Txatxilipurdik eskaintzen dituen zerbitzuen barruan egin ahal izango dira. Matrikulari dago-kionez, 300 eurokoa izango da.

Oraingo astean hasi dituzte Goikobaluko gazteek entseguak

J.B.

Eguaztenean hasi ziren Goikobaluko gazteak lehen entseguak egiten, eta aurten ere lan polita egiteko gertu daude herriko abeslari gaztetxoak. Oraindik datozen asteetarako izenematea zabalik dago.

Goikobalu abesbatzako gazteek dagoeneko hasi dira ikasturte berrirako entseguak egiten. Oraingo eguaztenean hasi berri dira Izartxoak taldekoak, 5etik 8 urtera bitarteko haurrak, eta berdin egin dute Goikobalu Txiki eta Gazte abesbatzek. Amaia Aboitz eta Rakel Murgiondok hartu dute taldeak zuzentzeko ardura eta Maider Ruiz ere ibiliko da koordinazioan.

Datorren ikasturterako ere ohiko emanaldiak gertatuko dituzte (Gabonetan, Aste Santuan eta gainontzekoetan) eta herriko kultura talde eta ekitaldietan ere parte hartzen jarraituko dute abeslari gaztetxoek. Errenteriako Gabon Kanten txapelketara ere joango dira aurten. Txapelketa horretara joan ohi den bailarako talde bakarra da, gainera, Goikobaluko gazteena.

Urtero moduan, beraz, lan handia dute herriko abeslari gaztetxoek aurten ere.

Entseguak dagoeneko hasita badaude ere, parte hartu gura duten haurrak oraindik garaiz dabilta eta saioetara jo besterik ez daukate. Izartxoak eguaztenean elkartzeko dira, 18:00etan; Goikobalu Txiki (9-11 urte) 18:45ean egiten dituzte saioak. Eguaztenean, berriz, Gazteak taldeak egiten ditu entseguak, 19:30ean.

Rakel Murgiondok aipatu digunez, aurten ere 50 bat neska-mutikoko taldea osatu gura luke, baina azken urteotan kopuruak zertxobait behera egin du. Probak, hala ere, haur guztiei dardere irekita eta ze ahots mota daukaten ikusi eta gero, berehala hasten dira abesten. Abesti aukeraketan, gainera, gustu guztietarako aukerak dituzte. Euskal herrikoietatik hasi, Oskorriekin jarraitu eta Beatlesen abesti ezagunak ere abestuko dituzte, Rakel eta esan digunez. Bereziki Afrikako doinuak gustatzen zaizkie, gainera, Goikobalukoak. Horren emaitzak hurrengo emanaldietan ikusi ahal izango dira, Gabonetatik aurrera.



GONDOBALU

Aurten ere, Gabonetan Errenteriako txapelketara joango dira.

2005-2006 ikasturtea

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza 2 (Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Fax: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

Bulego ordutegia
Goizean: 10:00-13:00
Arratsaldean: 15:00-18:30

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4
20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Bulego ordutegia
Goizean: 09:00-13:00
Arratsaldean: 15:00-19:00

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?



Mibel González Postaria, Blanca Daubagna Jaurifantziako langilea, David Arnaiz ikaslea, Rosangela De Oliveira Z-harbertzaria, Magdalena Cuesta Erizaina, Jabier Lejarzagü Erretiratu, Paki Mendizabal Etxekoandrea, Cristina Rodríguez Langilea

matrikula **zabalik**
irailaren 1etik aurrera

UDAL
EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

HABEREN GULUPAZ

Arrasaten lanera autorik gabe!



Badakizu...?

... zirkulazio handiko kale eta errepideetatik hurbil bizi diren pertsonen arnasteko arazoak izateko arrisku bikoitza dutela?

... besteak beste, auto pribatua neurrigabe erabiltzeak eragiten duela gehien klima-aldaketan?

... auto pribatua izateak urtean 2.500 eurotik gorako gastuak eragiten dituela batez beste, eta gasolinaren prezioa % 17 handitu dela aurtan?

Zer egin dezaket?

☘ Sasoian egoteko, nahikoa da egunero bizikletaz 20 minutu edo oinez 30 minutu ibiltzea.

☘ Kalkulatu zenbat diru xahutzen duzun autoarekin: ibilgailuaren aseguru, zergak, gasolina, konponketak, aparkaleketako prezioak, TAOa, autobideak, etab.. **Erabili garraio bide publikoak!! Merkeagoa da!!**

☘ Kalkulatu zenbat kostatzen zaizun lanera autoz joatea. Bestalde, kalkulatu zenbat kostatzen zaizun lanera garraio bide publikoen bidez, oinez edo bizikletaz joatea. **Poitsikoak eskertuko dizu!!**



ARRASATEKO UDALA
Ingurugiro saila



AGENDA 21
ARRASATE



Leintz
Garraioak S.L.



ingurumena
Zure esku dago
de ti depende



EUZKO INGARAITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ARTEAN
ETA INGURUMEN SAIA
DEPARTAMENTO DE TERRITORIO
Y MEDIO AMBIENTE



IHOBE
Ingurumen Informatikarako Sektorea
Sektorea Publikoa de Cordia Lankidetzak



EZETZASMATU



GOIATZ ARANA

Zer egiten dabilta Udaleko zinegotzi horiek?
Arrastoa: uztailaren 28an izan zen ekitaldia.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

San Asensio Errioxako ardoa
Beltza edo gorria 75 cl-ko botila

2,55€ 424 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ASIER BERGARETXErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Asier!
Galderen erantzun zuzena:
Uribarri auzoan.

ERRETRATUZAHARRA

Soldadutzara joan behar zuten kintoak

Gaur egun, kinto afarietara eta ez dute soldadutzarekin zerikusirik. Intsumisoek egindako borrokari esker, dagoeneko ez da eta derrigorrezkoa soldadutzara joatea. Baina, hain justu ere, soldadutzatik dator kintoen jatorria. Soldadutzara joan behar zuten adin bereko mutil taldea zen kintada bat. Bestelakoan artean, afaria edo argazkiren bat edo ospakizunen bat egiteko ohitura zuten, soldadutzara joan aurretik.

Horren adierazle da oraingo asterako aukeratu dugun argazkia. 1938ko kinto koadrila da. Honako hauek azaltzen dira argazkian, goian, ezkerretik eskumara: Eugenio Muxika, Mikel Arrieta, Ramon Heriz, *Antxon* eta Felix Garai.

Eta behean, ezkerretik eskumara, honako hauek daude: Patxi Egidazu (ez da segurua), Alberto Larratz, Jose Maria Lasagabaster, Santi Etxebarria, Jose Murua, Gerardo Garmendia, Pedro Solo-



gaistoa, Pablo Zeziaga, Antonio Murua, Antonio Uribetxebarria eta Josu Otadui.

Argazkia eta informazioa: Arrasate, langileek eraikitako herria liburua.
Urtea: 1938.

ADI IRAKURLE

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz Arrasate Pressera (Otalora 31)

HIZKUNTZAK DENONTZAT

● haur, gazte, helduentzat

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak
(ingeleza, euskara, hizkuntza, matematika...)

- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Multimedia sistema
- Mediateka dohan
- Bezeroei zerbitzua emateko estraneta
- Ikaslearen banan-banako jarraipena
- Ordenagailu gela eta internet
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

Matrikula epea zabalik



Arrasate - Gipuzkoa
Avda. de Álava, 4 • Tel.: 943 71 20 55
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com

bai&by



Maritxu nora zoz...

Zure ametsetakoa trajea dugu...

Leurrira Bartolo...

na...

iturrian zer dago...

ardotxo luxuria...

biok edango...

nahi degun...

Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.



Maritxu Kajoi
2005

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a

393. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Hiltegiaren eta Zuhaitzen gaineko mozioak onartuta

MIRARI ALTUBE

Mozio bi onartu zituzten astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran. Bata Zubillagako hiltegiari zegokion, eta bestea Nantesen dagoen Zuhaitz Errasti presoaren gainekoa zen. Ez batak ez besteak ez zuen EAJren aldeko botorik jaso.

Hainbat kontu erabaki zituzten astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran, tartean kultura etxeko lanak Brues eraikuntza enpresari ematea. Hala ere, eztabaidarik handienak mozio bik sortu zituzten.

HILTEGIAREN ALDE, SEI

Hiltegiaren gaineko mozioa aurkeztu zuen Aralarrek. Hiltegia Bizirik plataformarekin egindakoa eta Debagoieneko EB, PSE-EE eta PPk babestutakoa zen. Bost eskaera egiten zituen mozioak, tartean, gestio plana zehaztea, gerente independentea kontratatzea eta hiru hilabeteren buruan beharrezko inbertsioak onartzea.

Arritxu Oliben alkatea ez zen etorri bat Xabier Sarasuak esandakoarekin, eta esan zuen erabilera politikoa dagoela gaiaren atzean. Mankomunitatean eman beharrek eztabaida dela ere esan zuen, eta behar-beharrezkoa dela beste modelo bat gaineratu. 6 aldeko boto jaso zituen mozioak, Aralar, EB, PSE-EE eta PPrenak, eta 5 aurkakoak, EAJrenak.



Estatus politikoaren aldeko paperak erakutsi zituzten osoko bilkura egin bitartean.

ZUHAITZ ERRASTIRI BABESA

Zuhaitz Errastiren mozioa galdera-eskariaren tartean aurkeztu zuen Aralarrek, Aretxa plataformaren izenean. Lehenik eta behin bozketa egin zuten, eztabaidatu edo ez, eta PSE-EEko eta PPko zinegotziak aurka azaldu ziren.

*Hiltegiaren
gaiarekin erabilera
politikoa egiten
dabiltzala esan zuen
alkateak*

Baietza atera zela ikusita alde egin zuten osoko bilkuren aretotik. Lau eskaera egin zizkioten Udalari: senideei elkartasuna adieraztea; estatus politikoaren onarpenarekin isolamendua, dispersioa eta bakartzearen bukaera eskatzea; Nantesko espetxeko zuzendaritzarekin harremanetan jartzea Zuhaitzen berri izan eta egoera hori bukatzeko eskatzeko; eta Zuhaitzen egoera salatzeko herritarrei deia egitea elkarretaratze baterako.

Puntu gehienekin ados azaldu zen Arritxu; ez, ordea, estatus politikoa onartzearekin. EAJkoak abstenitu egin ziren, eta aldeko 4 botorekin onartu zuten.

Aurrerantzean egingo diren mobilizazioetarako deia

M.A.

Aretxabaleako preso politikoen azken berriak eman eta osoko bilkuran aurkeztutako mozioa jakinarazteko prentsaurrekoa egin zuen talde txiki batek martitzenean. Zuhaitz Errastik, bestalde, utzi egin du gose greba, 25 egunean jan barik egon ostean.

Kepa Urrea eta Zuhaitz Errastiren berri eman zuten irailaren 13an egindako prentsaurrekoan. Kepak dagoeneko 13 urte darमतza espetxean, eta abuztu arte Coruñaeko Curtisen egon da. Orain, baina, aldatu egin dute eta Cadizko Puerto Iean dago. Zuhaitz Errastik, bestalde, Frantziako Nantesko espetxean jarraitzen du. Bertan dagoen pre-

so politiko bakarra da, eta 25 egun egin ditu gose greban isolamendu politikoa salatzeko.

Osoko bilkuran aurkeztutako mozioa onartu egin bazen ere, alderdiek izandako jarrera salatu zuten prentsaurrekoan. PP eta PSE-EEko zinegotziek alde egin zuten aretotik, errespetu falta erakutsita, eta EAJ kontraesanetan dabilela gaineratu zuten presoaren estatus politikoa ez onartzeagatik. Bukatzeko, egingo dituzten mobilizazioetara agertzeko deia egin zieten herritarrei.

Aretxa plataformakoek osoko bilkuran adierazi zuten, Zuhaitzen eskaerak onartzea erabaki dute Nantesen, eta gose grebari utzi zion irailaren 9an. Hala ere, zuhurtziaz jokatu behar dela esan zuten, oraindik ikusteko dagoelako esandakoa betetzen duten.



Hainbat lagun elkartu ziren Aretxabaleako preso politikoen berri emateko.

2005-06 IKASTURTEA MAILA ETA ADIN GUZTIAK MATRIKULA EPEA IRAILAREN 5ETIK 27RA BULEGO ORDUTEGIA 16:30ETIK 19:00ETARA

b **berbetan**
HIZKUNTZ ESKOLA

INGELES
FRANTSES

BERBETAN HIZKUNTZ ESKOLA

BELORRIETA, 4

20550 ARETXABALETA

TEL./FAXA: 943 79 00 69

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 17
 FRAILE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 18
 FRAILE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basobro	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Instituta	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murrutxo ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Pustetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urts Gáin	943 79 99 11

UDALZAINGOA
 Arrasate 943 79 14 39 |

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00

San Migeletan taloak egiteko laguntza behar dute

M.A.

Herritarren laguntza behar du Loramendi Euskara Elkarteak San Migel jaietarako. Urtero moduan txosna jarriko du Durana kalean, eta taloak egin eta herritarrei banatzeko jendea behar du. Izena eman gura duena Loramendiko lokaletik pasa dadila arratsaldeetan.

Gero eta hurbilago ditugu San Migel jaiak eta Loramendi EEK lehenbailehen lotu gura ditu irailaren 24ko kontuak. Hala, taloak egiteko jendea behar dute. Aurten, gainera, plantxa hañdiagoa jarriko dute Durana kaleko txosnan bizkorrago lan egiteko, eta taloak jotzeko zein erretzeko iaz baino jende gehiago egotea komeni zaie. Bi txanda egongo dira: lehenengoa 10:00eta-

tik 12:30era eta bigarrena 12:30etik 14:30era. Beste era bateko lanak gurago dituenarendako ere badaukate zeregina: muntatze lanak irailaren 23an, egubakoitza, 17:00etan egingo dituzte eta desmuntatze lanak, irailaren 26an, astelehena, 17:00etan.

San Migeletan taloak egiten ikasten duenak urriaren 2an Kilometroak jaiak jarriko duten txosnan lagun egin dezake. Horretarako ere Loramendira joan izena ematera.

BEGIRALE IKASTARORAKO IZENEMATEA
 Debagunek antolatutako begirale ikastaroan izena emateko epea zabalik dago irailaren 30a arte. 200 orduko ikastaroa da eta beste 120 ordu praktika egin behar dira. 290 euroko prezioa du. Izena emateko Loramendi EEko lokaletik pasatu.



ARTXIBOA

Herritarren laguntzarekin egiten dituzten taloak Loramendi EEK San Migeletan.



Ume eta gazte, guztiek hasi dute kurtsoa

Astean hasi dute ikasturtea herriko ikastetxeetan. Pausoka Haur eskola joan zen astetik zegoen umez beteta, eta Basabeazpin eta Kurtzebarri astean sartu dira gehienak. Kurtzebarri eskolako haur eta lehen hezkuntzakoak izan dira azkenak, martitzenean, hain zuzen. Oporretan gustura ibili badira ere pozik itzuli dira guztiak. /M.A.

LABUR

K23 eta Zelabaixota koadrilen arteko desafioa bihar, zapatua, herriko plazan

K23 eta Zelabaixota koadrilen arteko desafioa izango dugu ikusgai bihar, zapatua. 09:30ean kalejira egingo dute txistulari eta guzti, eta ondoren, herri kirolen norgehiagoka izango da herriko plazan: trontza, sokatira, kaskara batzea...

Badira hilabete batzuk elkar zirikatzeko hasi zirela bi koadrilak, eta bihar ikusiko dugu K23koen gaztetasuna edo Zelabaixotako trebezia den nagusi. Desafioa bukatu eta gero Taberna Berriera joango dira guztiak bazkaltzera.

Jauregi Okindegia

Otalora 10
 Tel.: 943 79 57 47
 ARETXABALETA

Jon Díaz
 Harakina

Loramendi 1
 Tel.: 943 79 71 69
 20550 ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa


Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
 Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68



ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
 ARETXABALETA
 943 79 64 91
 605 71 66 92 / 629 47 72 70



Propaganda
 Kartelak
 Jai egitarauak
 Pegatinak
 Liburuak
 Errebistak

EGUZZKIGRAF
 inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
 20550 Aretxabaleta
 Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
 E-mail: info@eguzkigraf.com

Astean hasi du denboraldia Karate Eskolak, eta izena eman daiteke

M.A.

Martitzenean hasi zuen denboraldia Aretxabaleta Kirol Elkarteko Karate eskolak. Talde bi ditu Odilo Vazquez entrena-tzaileak, eta martitzen eta egubakoitzetan elkartzen dira Kurtzebarri eskolan. Bizkortasuna eta teknikak landuko dituzte txapelketetara joateko.

Astean izan dituzte lehenengo entrenamendu saioak Karate eskolako kideek. 14 bat mutiko elkartu ziren martitzenean, eta poliki-poliki osatzen joango dira taldea. Izena emateko epea, gainera, oraindik zabalik dago.

BIZKORTASUNA LANTZEN

Talde bi ditu Odilo Vazquezek: 6 urtetik 11 urte bitartekoak eta 11 urtetik aurrerakoak. Lehenengo taldean 18 mutiko izan zituen iaz; bigarrenean, ostera, sei baino ez. Izan ere, lehenengo taldekoek jolasen bitartez lantzen dituzte teknikak, baina bigarrenekoek entrenamendu saio gogorragoak egiten dituzte: "Sakrifizioa eskatzen du karateak ere, eta gutxi daude aurrera egiteko geru", dio Odilok.

Diziplina, psikomotrizitatea eta multilateralitasuna lantzen dituzte ume eta gazteek karatean. Txikienei teknikak eta kata erakusten dizkie Odilok, eta nagusienek borrokan egiten dute. "Ez da indarrean oinarritutako kirola, bizkortasunean baizik. Hori horrela, neskak ere ondo moldatzen dira", dio Odilok, baina aur-



Mutilak dira nagusi karate taldean, baina neskak ere ederto moldatzen dira.

ten ez bada hasten, behintzat, ez dauka neskarik taldeetan.

TXAPELKETAK ETA IRTEERAK

Urtean landutako teknikak txapelketetan erakusten dituzte. Txitu-

kien taldeko jokalaririk bat Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan egon zen aurreko denboraldian. Odiloren esanetan, Euskadiko txapelketan oso maila altua dago eta ez da batere samurra aurrera egitea.

Bestalde, Arrasate eta Bergarako taldeekin egiten dute txapelketa ekain inguruan, eta aurreko denboraldian antolatutako dute. Denboraldia bukatzeko, gainera, irteeraren bat edo beste egiten dute. Horrela, beste karate jokalaririk batzuk ezagutu eta elkarrekin jarduten dute; iaz, esaterako, Oriora joan ziren.

*Diziplina,
psikomotrizitatea eta
multilateralitasuna
lantzen dituzte
umeei karatean*

LABUR

Real Sociedadek eta UDAko beterranoek partidua jokatu dute irailaren 25ean

Datorren irailaren 25ean, eta San Migel jaien egitarau barruan, Real Sociedad eta Aretxabaleta Kirol Elkarteko beterranoen arteko partidua jokatu da. 11:30ean izango da, Ibarra futbol zelaietan, eta partidua hasieran, UDAko zuzendaritza batzordean hainbat urtean egondako kideak omenduko dituzte. Bixente Etxeandiarri, azken 10 urteotan UDAko lehendakari izandakoari, urre eta bitxizko intsignia jarriko diote. Rafa Etxeandiarri, Jabier Etxeberria Fito eta Iñaki Antxiak, bestalde, urrezko intsignia jasoko dute, 10 denboraldi baino gehiago egin dituztelako zuzendaritzan.

Patxi Agirrezabalaga eta Goio Arrietaren zuzendaritzapean dabilta egiten entrenamendu saioak beterranoak.

Igor Arenatza aretxabaletarra UDAko preferenteko taldean hasi da jokatzeko

Igor Arenatza aretxabaletarra etxera itzuli da, Aretxabaleta Kirol Elkartera, hain zuzen, eta preferenteko taldean jokatu du. UDAn hasi zen jokatzeko orain dela urte batzuk, eta hemendik Bilbao Athleticera joan zen. Hainbat taldetan ibili da: Eibar, Barakaldo, Merida... Eta azken denboraldia Murtziako Sangoran egin zuen. Orain, 31 urterekin, etxera itzuli da, eta preferenteko taldean aurrean egon dadin ahalegin guztiak egingo ditu.

Kanpoan jokatu du domekan preferenteak, Idiazabalera, hain zuzen. Bestalde, kadeteek, bai lehen bai bigarren mailakoek, eta infantilek denboraldia hasiko dute asteburuan.



Mendizale ugari Kutzebarriko egunean

Goiz polita agertu zen domekan eta aretxabaletar ugari hurre-ratu zen Kurtzebarriko egunean. Haize hotza aurkitu zuten tontorrean, baina euririk ez, eta Goio Eskibeleg esandako meza ostean, gus-tura jan zuten Murruxok banatutako txorizo eta gazta. /M.A.



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76


IRIARTE

Umeen
denda
Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAK

Karlos



Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETAK



FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAK
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

KARATE KYOKUSHINKAI



Ordutegia:
Astearte eta
ostiralak
18:30etik 20:30era
Kurtzebarri eskolan

Tel.: 656701737

Expres



Santakurtz 16
943 79 23 43

**Mobiliario
ARENAZA**

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

ATREBENTZIAEZPADA/ Gustora bueltau zara eskolara? Zer egin dozu lelengo egunetan?



NEREA FERNANDEZ DE ANTONA
5 urte



DANEL SEIJO
4 urte




EIDER LUENGO
6 urte



ENDIKA MARTIN
10 urte



HAIZEA BENGOA
4 urte



XABIER ZUAZABEITIA
5 urte

Bai, pozik etorri naz, baiñe oporretan hobeto pasetan dot. Lagunekin egin dot jolas eta marrazkixek be egin dittut. Andereñuek, Eneritzek, gaiñera, ipuiñek kontau dusku.

Bai, oso pozik etorri naz. Margotu egin dot eta jolas be bai lagunekin, baiñe oporretan be ikusten nittuen lagunek eta hobeto pasetan neuen. Gaiñera, kostau egin jat esnaketie.


Bai, oso ondo pasetan dote-lako; gaiñera, lagun asko ikusi barik neuken Eskorriatzakuek eta Arrasate-lagunek. Jolas egin dot, baiñe lanien be hasi gare, orde-nadoriez ibilli gare.

Bai, gustora hasi naz, baiñe gureu oporretan. Lelengo egunien oporren gaiñien egin dou berba eta liburuei begire be hasi gare. Goi-xien asko kostau jat jaiki-ttie, ohittu barik neuelako.

Bai, oso ondo pasetan dot, oporretan baiñe hobeto. Jolas asko egin dot lagu-nekin, eta marrazkixek egin be bai. Aurten, gaiñe-ra, andereño barrixe dau- ket, Maite da bera.

Bai, pozik etorri naz, baiñe oporretan gustorau. Logu-re haundixekin jeiki naz, gaiñera; aman ohien egin dot lo. Irakaslie lehengue da, eta marrazkixek egin dittugu berakin.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK DANTZARIAK ETXERA BAZKALTZERA Bergara, Oñati, Arrasate eta Antzuolako umeak hurreratu ziren Haur Dantzarien egunera. Hainbat herritarrek euren etxeetan hartu zituzten eta bazkaltzen eman, Loramendi Dantza Taldeak egindako deiari erantzunez. Gero eta gutxiago direla diote antolatzaileek, baina aurten gehienek etxeetan bazkaldu dute; zorionak, bada, elkartasunari. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Informazio guneak ibilbideen berri izateko

Mankomunitateak beste elkarte batzuekin batera informazio-guneak jarri zituen auzo batzue-tako bide ertzetan; Orora doan errepide ertzetan, esaterako. Kar-telean ibilbide bat proposatzen zion oinezkoari: Oron hasi eta Larrinotik bueltan Areantzara joatea, hain zuzen.



ASTEKODATUA

25

EGUN EGIN DITU ZUHAITZ ERRASTIK GOSE GREBAN

Abuztuaren 15ean ekin zion gose grebari Frantziako Nantesko espetxean dagoen Zuhaitz Errasti preso aretxabaletarrak, eta irailaren 9an bukatu zuen, 25 egun jan barik egin ostean.

BESTEKEESANA

“ Alardea guretzat oso gauza inportantea da, eta oso gauza polita. Doinua hasten denean, esango dizut, hondarribiar gehienok hunkitzen garela. Neskek parte hartu nahi dutenez azken hamar urte hauetan badakizue ze istilu egon diren eta bertatik ere, barrutik ere, eta alardea pila bat sentitu arren ulertzen ez dena da nola iritsi garen iritsi garen egoeratarra: irainak, kalean golpeak eta hori guztia. (...) Neskek, aurten behintzat, egin dute ibilbide osoa, oso gustura geratu gara denok horrekin eta kito. Nahiko lotsagarria izan da gertatu dena Kale Nagusian, plastiko beltzarekin tapatu..., baina poliki-poliki bagoaz aurrera. Nik uste dut garrantzitsuena dela kaleko giroa nahiko lasaitu dela.

IRAITZ ZUAZABEITIA
Arrasate Irratia/05-09-12

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Beste ikuspuntu bat

Batzutan beharrezkoa da distantzia hartzea, beste herri batzuk bisitatu eta euren arazoei irtenbidea nola eman dieten ikusi, konturatzeko hemen ere gauzak desberdinak izan zitezkeela.

Aurten Hegoafrikan izan naiz oporretan eta Robben Island eta District 6 bisitatzeko aukera izan dut Cape Townen. Bi leku hauek, Sowetorekin batera, apartheidaren sinbolo nagusienak dira. Robben Islanden dozenaka urte eman zituzten preso Nelson Mandelak eta beste milakak euren azalaren kolorea ez zelako egokia. District 6 Cape Towneko auzo bat da, non arraza ezberdineta-ko 60.000 lagun bizi ziren armonian. Zuriak, beltzak eta koloredunak. Egun batetik bestera auzoa zurientzako gunea izendatu zuen gobernuak, familiak eta lagunak banatuz.

Historia iluneko lekuak dira. Baina interesgarriena ez

dira lekuak, baizik eta bertan bizi izan zirenek kontatzen dituzten istorioak. Iragana eta etorkizunaren inguruan egiten dituzten gogoetak. Eta duela hamaika urte apartheidia amaitu zenean ideia horiekin aurrera nola egin ahal izan duten Hegoafrika gaur eguneko nazio multikulturala bihurtu arte.

Batetik, argi zeukaten Hegoafrika ez zela ez zuriena ez eta beltzena ere, guztiona baizik. Baita etorkizunik izan nahi bazuten alde batekoak eta bestekeoak elkar behar zutela ere.

Bestetik, nahiz eta iragan tragikoa bizi izan zuten, biktimen paperari uko egin zitoten, biktimismo horrek irteerarik gabeko zirkulu baten murgilduko zituen eta.

Ezin da esan guztia arrosa kolorekoa denik Hegoafrikan, ekonomian, hezkuntzan eta beste hainbat arlotan oraindik badutelako zereginik. Baina elkarbizitzaren auzia modu miresgarrian maniatu dutela ezin dut ukatu.

“Biktimen paperari uko egin zitoten, biktimismo horrek irteerarik gabeko zirkulu baten murgilduko zituen eta”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a / 222. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarr@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Profila: gaztea, langilea, eta familia osatzeko gurasoen etxea utzi guran

JON BEREZIBAR

Etxebizitza publikorako eskaera egingo lukeen eskoriatzarraren profila osatu du Udalak inkesta baten bitartez. Herrian egingo den etxebizitza publikorako eskaintza antolatzeko jaso ditu datuak eta horien ondorioen berri eman du oraingo astean.

Etorkizunean egon daitekeen etxebizitza publikoaren gaineko eskaera aztertzeke inkesta egin eta ondorioak plazaratu ditu Udalak. Joandako ekainean Udalak jasotako datuek ipini dute agerian Eskoriatzan etxebizitza eskatzen dutenen ezaugarriak zeintzuk diren. Guztira 150 eskatzaile aurkeztu ziren udaletxean, eta horiei egin zaie etxebizitza beharren gaineko galdeketa. Mota eta baldintza askotako eskatzaileak aurkeztu ziren, baina osatutako profila horien ehuneko nahiko altua jasotzen du: 31 urte batez beste, ezkongabea, erdi mailako ikasketekin eta lanean dabilena. Aipatutako eskatzaile gehienak, gainera, Eskoriatzan bertan daude erroldatuta eta %75 herrian jaio-takoak dira, hain zuzen ere.

Inkestatuen gaur egungo egoerari dagokionez, gehien kasuan beste baten jabetzan dagoen etxebizitza batean bizi dira, ia denak familiaratean. Gainontzekoek, hau da, alokairuan bizi direnek, 294 euroko errenta ordaintzen dute hilean. Aipagarria da, era berean, horietatik erdiak ez dutela alokairuaren gaineko kontratu formalik. Horrekin batera, gaur egun bizitzen dauden etxebizitzaren tamaina ere hartu da kontuan. Batez beste, 87,7 metro koadroko etxeetan bizi dira inkestatuak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino handiagoa da kopuru hori. Datu horiekin garbi geratuko litzateke Udalak egindako txostenaren arabera etxebizitzaren neurri txikia ez dela beste etxe bat bilatzeko arrazoi orokorrean.

Izan ere, etxea eskatzeko arrazoiak beste ildo batetik doaz txostenak argitu duenez, hau da, gurasoen etxea utzi edo familia berria osatzeko utzi gura dute etxea. Izan ere, inkestatuen %68 hiru edo



Etxebizitza jabetzan hartzea da gehien nahia, baina 156.300 euroko prezioa gainditu barik

Etxebizitza berriarengatik 156.000 euro ordainduko lukete inkestatuek

lau pertsonako familian bizi dira, eta etxea eskatzeko motibazioan, ia kasu guztietan, hori da arrazoi nagusia; kasuen %88, hain justu ere.

Behin profila zehaztuta, zelako etxebizitzak eskatzen dituzten ere aztertu dute inkestan. Gehienek jabetzan hartu gura lukete etxea, ahal izatekotan eraiki berria baina beste aukerarik ezan %74k bigarren eskukoa ere hartuko lukete. Adierazgarria da %21 besterik ez leudekeela errentan hartzeko prest. Honako hau

Eskaintza publiko baten kasuan, inkestatutako gehienak onartuko lituzke Udalak

litzateke eskatzaileen neurriko etxebizitza: 82 metro koadro, bainugela bi eta hiru gelarekin eta 156.300 euro ordainduko lituzkete. Halaber, garajea ere izan beharko luke etxe berriak. Eskera ikusita, balizko finantzaketa moduak ere aztertu dira. Horrela, ordaintzeko gertu leudekeen kopuru horretatik %10 emango lukete lehen ekarpenean eta mailategua eskatzekotan, 140.312 eurokoa eskatuko lukete.

Datuak eskuan, ondorioak ere egin dituzte udal ordezkariak

Etxebizitza berria lehen eskukoa izatea eta jabetzan hartzea da galdetutako gehien nahia

Eskoriatzako etxebizitza beharren inguruan. Laburtuz, eskatzaileak izan daitezkeen 150 lagunetatik 120k beteko lituzkete eskaintza publikoan parte hartzeko baldintzak. Kontuan izanda bederatzik eskatzailek jabetzan beste etxebizitza bat daukatela eta beste lau ez daudela herrian erroldatuta, 107 eskaera onartuko lituzke Udalak. Hala ere, etxebizitza tasatuetarako ere aukeraketa egingo luke Udalak, diru-sarrerara handiagoak dituzten eskatzaileen artean.

LABUR

Euskal aztarnei buruzko hitzaldi sorta Museo Eskolan

Datozen asteetarako Euskal Herriaren eta munduaren jatorrien gaineko hitzaldiak antolatuko dituzte Ibarraundi Museo Eskolan. Datorren astelehenean hasiko dira hitzaldiak. Pello Zabalak eskainiko du lehena, mito, errito eta kondairen gainekoa, 19:00etan. Hurrengo astean, hilak 29, Felix Ares unibertsoaren sorreraz mintzatuko da. Eta urriaren 6an Euskal Herriko historiaurrea izango da gaia, Alvaro Arrizabalaga adituaren eskutik.

Ardo dastatzea bihar, Aitzorrotz elkartearen eskutik

Aitzorrotz elkarteak antolatuta ardo dastatzea izango da bihar ilunkaran, 19:00ak aldera, herriko plazan. Gura duenak ekitaldian parte hartzeko deialdia egin gura dute elkartetik. Bost euroren truke edalontzia erosi eta dastatzea egiteko aukera egongo da. Txarretela eta edalontzia behin erosi eta gero, hiru ardo mota probatzeko aukera egongo da: ardo ondu bi eta erreserbako bat. Sabela hutsik geratu ez dadin ere, pintxoak emango dituzte Aitzorrotz elkartearen edalontzietan batera. Kultura elkar-tekoek ahalik ez jende gehien animatzeko eskatzen dute eta giro bikaina egongo dela ere azpimarratu gura dute.

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburuegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaizua (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Rerife (Zumarraga)	943 72 15 15
Rerife (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Lanialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

PINTURA IKASTAROA

Urritik ekainera bitartekoa izango da Udalak antolatutako pintura ikastaroa. Zapatu arratsaldeetan izango dira eskolak, 14:30etik 17:30era, eta kultur etxean egingo dira. Datorren egubakoitzean amaituko da izena emateko epea eta matrikula 80 euro izango da.

ARANTZURA ERROMESALDIA

Oraingo domekan egingo dute Eskoriatzako fededunek, urtero legez, Arantzura peleginazioa. Herri-tar askok oinez edo autoz egingo dute bidea. Autobusak, berriz, 10:00etan irtengo dira geltokitik.

OSASUNZENTROA

GRIPEAREN AURKAKO KANPAINA

Astehenean, hilak 19, hasiko da gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina. Azaroaren 4ra arte jardungo dute txertoak ipintzen.

Zigor-gelarako abisua jaso du Marixol Iparragirrek

J.B.

Askatasuna taldeak oraingo astean aditzera eman duenez, Marixol Iparragirre preso eskoriatzara bost egunerako zigor-gelan sar dezakete, eta aukera dute zigorraren epea luzatzeko. Zigor mota horrek presoaren bizi baldintzak asko kaltetzen ditu, Askatasuna taldearen arabera.

Frantziako Muret-Seysseko presondegian dago Marixol Iparragirre, eta *mitard* izeneko zigor-gela baten bost egun igarotzera zigor dezake espetxeko zuzendariak. *Mitard*-eko egonaldian kaltetu egiten dira presoaren bizi-baldintzak, Askatasuna taldeko ordezkariak azaldukoaren arabera. Izan ere, zigor ziega "oso gogorra" da, "Fran-

tziako espetxe sistemako gogorrenetakoa", hain zuzen. Ohiko geletan baino baldintza latzagoak dituzte gela horietan, eta ezin dute inolako objektu pertsonalik bertara sartu. Ohea, komunak eta gainontzekoak, guztiak dira harrizkoak eta liburu bakarra eta jantzi bat soilik eraman daiteke.

Zigorraren gogortzeko abisua, espetxe-funtzionarioen arabera, Marixolek ziegako armairuko atea itxi ez izanagatik ezarri diote. Antza, funtzionarioek ezin dute preso ikusi atea zabalik badago. Baina, hamabost egunean antzekorik ez badu berriro egiten, zigorra ez da beteko.

Marixolekin batera, Mikel Albisu *Mikel Antza* espetxe berean dago. Albisu ere zortzi egunerako sartu dute *mitard*-ean, ziegaz aldatzea ez zuelako onartu.



Oñatiko Amonal taldea izango da jaialdiko taldeetako bat.

Rock jaialdia bihar arratsaldean gaztetxean

J.B.

Oporretan egindako geldialdi-txoaren ostean ikasturteari indar berriekin ekiteko gertu daude Eskoriatzako Gazte Asanbladakoak. Ondo hasteko, musika jaialdia antolatuko dute oraingo zapatarako, bost musika talde gonbidaturekin.

Gazte Asanblada hasi da dagoneko lanean eta oraingo udazkenean ere kontzertu eta ekitaldiz betetako agenda egin gura dute. Ikasturte berriko lehen ekitaldia

bihar bertan egingo dute, antolatutako kontzertuekin.

18:00ak aldera hasita, bost rock talde izango dira gaztetxean, kontzertua egiteko. Haien artean, besteak beste, Oñatiko Amonal eta Arrasateko Last Rebels taldeak igoko dira eskenatokira.

Ikasturteko lehen ekitaldi horrekin gaztetxea indartu egin gura dute. Halaber, ekintzekin gogotsu jarraitu gura dutela adierazi digute ordezkariak. Aditzera eman digutenez, datozen asteetarako Sorkunen emanaldia daukate iragarrita.

LABUR

Langile bila dabilta Torrebaso hotelean; udazkenean dute hotela zabaltzeko asmoa

Aurki, udagoien honetan, da zabaltzeko Torrebaso hotela, industrialde berrian eraikitzen dabilzana. Lanek aurrera doazen neurrian, hoteleko lantaldea osatu guran ere badabilta arduradunak.

Hori dela-eta, langileak hartzeko deialdia egin dute eta hilaren 23an amaituko da curriculumak udaletxean uzteko epea. Aukeraketak ere laster dira egitekoak. Hainbat alorretarako behar dituzte beharginak. Tabernarako eta logeletarako zerbitzariak, administratzailea, teknikariak, sukaldaria, ekonomatorako pertsona bat eta harrerarako beste bat lortu gura dituzte. Arduradunek Eskoriatzako bertako jendea gura dute, eta horregatik egin da deialdi irekia oraingo honetan.



Emakumezkoen Euskal Kopa

Saskibaloia izango da nagusi asteburuan Eskoriatzan, Kirol Elkarteak antolatutako Emakumezkoen Euskal Koparekin. Gaur hasi eta domekara arte Hondarribia-Irun, Tabirako Baque eta Irlandesas UPV taldeen arteko neurketak egongo dira kiroldegian. Gaur eta bihar 19:30an hasiko dira partiduak eta domekan, ostera, 12:30an. J.B.

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

FAGOR
Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gasteiz auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001

NOVIBACOR

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko irailaren 16a / 163. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorla Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Guztia gertu dute Aitor Aranaren omenezko IX. ibilaldirako

U.M.

Datorren zapatuan egingo dute aurtengo edizioa. Sei-zazpi orduko ibilbidea prestatu du Orixol Mendi Elkarteak, baina azpimarratu nahi dute parte-hartzaileek edozein momentutan utz dezaketela ibilbidea; hau da, ez dutela zertan ibilbide osoa egin.

Izan ere, askorendako gogorra da sei-zazpi orduan ibitzea; hala, zirkuitua edozein momentutan uzteko aukera egongo dela ziurtatu digu Orixol Mendi Elkarteak, eta, modu horretan, edozeinek parte hartu ahal izango duela Aitor Aranaren omenezko ibilaldian. Hala, antolatzaileek jende dezentente espero dute; izan ere, iaz 150 bat lagun izan ziren. Gainera, jakinarazi digute dagoeneko bidali dutela gonbidapena Euskal Herriko mendi-elkarte guztietara.

IBILBIDEA NONDIK NORA ETA NOIZ

Orixol Mendi Elkarteak presidente Aitziber Aginagaldek esan digu zein den aurtengo ibilbidea: Ibarra, Tellamendi, Izpizte, Zabalaundi, Olaeta, Marixeka, Orixol eta Ibarra.

08:00etan aterako dira Ibarrik. Izenematea, berriz, apur-



Iaz, 150 bat parte-hartzaile etorri ziren Aramaioa, Aitor Aranaren ibilaldira.

txo bat lehenago egin beharko dute, leku berean. Bestalde, hiru hornidura-zona izango dituzte bidean: "Handiena Marixekan; han salda eta txorizoa emango dizkiegu parte-hartzaileei".

OROIGARRIA GUZTIENDAKO

Horrez guztiaz gainera, kiroldegiko dutxak erabili ahal izango

dituzte parte-hartzaileek mendi-buelta bukatzen dutenean. Eta guztiendako oroigarritxo eta diploma bana prestatu ditu Orixol Mendi Elkarteak; baita ibilbidea bukatzen ez dutenendako ere.

Informazio gehiago behar duenak, honako telefonora dei dezake: 945 44 51 05 (Aitziber).

Datorren astean hasiko da ehiza denboraldia

U.M.

Irailaren 25ean hasi eta otsailaren bigarren domekara arte ibiliko dira Aramaion ehizan. Basurdea ehizatze sasoia da Araban. Eta izango dute zer ehizatu, urtetik urtera handitu egiten da eta Arabako —eta Aramaio— basurde kopurua.

Eta horrekin batera, igo egin da baita ere urtetik urtera baserritarrek soroetan eta zelaietan izaten dituzten kalteak, basurdeek eraginda. Oilgor Ehiza eta Arrantza elkarteak presidente Eduardo Fernandezek jakinarazi digunez, aurtengo dagoeneko eragin dituzte zenbait kalte Azkoagan. Artoa eta babak zeuden sororen batean sartu dira. Halakoetan ohi duten moduan, Oilgor elkarteak kalte-ordainak emango dizkio kaltetutako baserritarrei. Gainera, laster lasaiago ibili ahal izango dira baserritarrak, laster hasiko dira eta Aramaion uxaldiak egiten.

BI KOADRILA IBILIKO DIRA EHIZAN

Hain justu ere, lehen esandako moduan, ehiza denboraldia datorren domekan hasiko dute eta egunean bertan egingo dute Aramaion lehenengo uxaldia. 15 bat lagun aterako direla kontatu digute. Eta

hamabost egun barru beste uxaldi bat egingo dutela. Izan ere, Aramaion bi koadrila ibiltzen dira ehiza larrian. Eta txandaka ateratzen dira uxaldiak egitera. Koadrila horietako bateko kide Asier Elexalde kontatu digunez, urtean uxaldi kopuru jakinak egiteko baimena ematen die Diputazioak, tokian tokiko ehiza aukeren arabera. Hala, Aramaion 18 uxaldi egiteko baimena dute eta koadrila bakoitzak bederatzina egingo ditu.

Irailaren 25ean egingo dute lehen uxaldia; 15 bat lagun aterako dira basurde bila

Basurdeek dagoeneko eragin dituzte kalteak Azkoagako soro batean

San Martin Eskolan ekin diote ikasturte berriari

U.M.


Joan den egunean, hilak 8, estreinatu zuten San Martin Eskolan aurtengo ikasturtea. Orain, goizez bakarrik dabilta neska-mutikoak. Asteleheneetik aurrera hasiko dira goizez eta arratsaldez. Bi urtekoak ere datorren astean hasiko dira. Bestelakoen artean, bizikidetzako landuko dute aurtengo.

125 neska-mutiko matrikulatu dira aurtengo San Martin Eskolan, 55 neska eta 70 mutiko. Horien artean, hiru ikasle berri badira, Aramaioa bizitzera etorri direnak. Bi

urtekoei dagokienez, berriz, aurtengo 12 matrikulatu dira eta datorren astean hasiko dira eskolan, adaptazioa egiten. Eta irakasleei dagokienez, 16 dira, berriak bost.

ZUZENDARI BERRIA

Bestalde, Blanka Mendialdua aukeratu dute aurtengo ikasturterako zuzendari. Hark adierazi digunez, aurtengo landuko duten proiektua bizikidetzako (elkarrekin bizitzea) da. Horrekin batera, IKT programan ere sakonduko dute: Informatikaren eta Komunikazioaren Teknologia. Oro har, ordenagailuen erabilpena ikasleei erakustea da IKT.



Pozik ibiltzen dira umeak eskolan, batez ere txikiak eta batez ere jolas-orduan.

LABUR

Erretiratuen Egunerako izenematea zabalik

Dagoeneko egin dute Erretiratuen Egunean parte hartze-ko deia. Antolatzaileak, Arabako Pentsiodunen, Erretiratuen eta Alargunen Elkarte Probintzialak, urriaren 8a aukeratu du horretarako. Eta 13:00etan ipini dute hitzordua. Babesgabeen Parrokian meza esango dute eta. Horren ostean, 14:30ean bazkaria eta dantzaldia izango dituzte, Mendizorrotza kiroldegian. Parte hartu nahi duenak irailaren 28a baino lehen 20 euro sartu beharko ditu Vital Kutxan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletekoa	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren azterkerako zerbitzua eskaintzen dute. Autoetako bizilagunei zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

GRIPEAREN KONTRAKO TXERTOIA
Irailaren 19tik azaroaren 4ra arte jardungo dute aurten gripearen kontrako txertoa ipintzen. 65 urtetik gorako guztiek eta gaixotasun kronikoren bat dutenek (bihotzekoak, biriketakoak, giltzurrunekoak...) hartu behar dute txertoa. Eta nahi izanez gero, pertsona nagusiekin-eta harremanak dituztenek ere har dezakete; gizarte laguntzaileek, esaterako. Oro har, medikuek txerto hori ipintzea gomendatzen dute, gripearen eragina dezente saihesten du-eta. Aramaiorako 250 txerto prestatu ditu Osakidetza, baina, beharra izanez gero, gehiago eska ditzakete. Gripearen kontrako txertoa hartzeko derrigorrezkoa da aldeztu aurretik txanda hartzea. Horretarako honako telefonoren batera deitu beharra dago: 945 44 53 40 edo 943 03 52 50. Txertoa Aramaioko anbulatorioan emango dute. Anbulatorioa joan ezin dutenei, berriz, erizaina joango zaie etxera, hala eskatuz gero. Orduetgia honako hauze da: asteleheneetik barikura, 08:00etatik 13:30era; eta martitzenetan, 15:00ak arte.

ELKARRIZKETA

FERMIN ETXEBARRIA/ARTZAINA

“Lehen txakurrik ez genuen; erabiltzen genituen piper-poteak, harriz beteta”

UBANE MADERA

Domekan, Artzain Eguna ospatuko dute Amurrion (11:00). Beste batzuekin batera, gonbidatu berezia izango dute han: Arraga auzoko Fermin Etxebarria artzaina. Bizipentxo batzuk kontatu dizkiugu jaiotetxean, Arraga-burun:

Pozik hartuko duzu omenaldia?
Bai. (Barre) Bueno, pozik edo behintzat atera zitekeenik ez nuen pentsatu.

Zenbat urtean ibili zara artzain?
Bizi guztian. Beste lan batzuk ere egin ditut: mendian ibili arbolak botatzén... Dirua falta zen eta nonbaitetik atera egin behar! Anaiak-eta nituen gazteagoak, eta artzain haiek ibili ziren; baina fabrikara sartu ziren, aita osasun arazoekin hasi zen eta neu hasi nintzen artzain eta etxeko ganaduak zaintzen.

Beraz, lan asko egindakoa zara...
Bai, nahikoa, pobrea izateko... (Barre) Baina orduan ardi asko nituen eta orain gutxitxoago. Orduan 260-edo nituen.

Non ibiltzen zinen ardiekin?
Hemen, Etxaguengo haitzean. Eta orain, ostera, Anboton. Anboton, e?

Bai. Han dugu elkarte bat eta ardien buelta egin ostean, hamarretakoa egiten dugu. Kazatxo izena du. **Zergatik aldatu zenuen lekua?** Haitzean asko jausi egiten ziren eta norberarendako ere arriskua zegoen. Anboton, berriz, mendiak arrisku txikiagoa du eta garbiagoa da. Hemen asko kostatzen zen, baita ere, ardiak pilatzea; han samurtxoagoa da. **Orain zenbat ardi dituzu, bada?** 80 bat.



U.M.

“8-9 urterekin joan nintzen lehenengo aldiz mendira, aitarekin, 150 bat ardirekin”

A! Ez dira gutxi!
(Barre) **Eta egunero ibiltzen zara?**
Orain baserrian lan gutxiago dago eta egunero ibiltzen naiz. Lauzpabost elkartzan gara han, tertulian egin, hamarretakoa egin... Horrela ibiltzen gara.

“Timoti Etxebarria da Aramaioko artzainik gogorrena. Euskal Herrian ez da egongo halakorik!”

Zela izaten da?
Neu jaikitzen naiz 07:00etan eta 07:30ean-edo ateratzen naiz, autoz, bertaraino. Hemendik ardiak dauden lekura 15 bat minutu dago autoz joanda. **Gero neguan?**
Hona berriro, etxerantz.

Arabako gotzaina, kofradiako bazkarian

U.M.

Aramaioko abadeek eta Aramaion abade ibilitakoek ohitura dute urtean behin Aramaion elkartu eta bazkaria egiteko. Andramari Eguneko hurrengo martitzenean egin ohi dute hori. Aurten ere hala izan da. Gainera, gonbidatu berezia izan dute: Arabako gotzain Mikel Asurmendi.

Andra Mari Ibabe kofradiako abadeak elkartzan dira urtean behin Aramaion. Emilio Perez parro-

koak kontatu digunez “XVI. mendea ezkerer uttero-urtero egin izan dugu”. Aurten, honako hauek elkartu dira: Jesus Mari Elexalde (aramaiorarra), Prudentzio Garai, Ramon Larrañaga (Oletan abade da orain), Benito Nafarrate (aramaiorarra), Jose Mari Salazar, Jabi Zubiaurre, Antonio Untzeta (aramaiorarra), Angel Ibisate (Arabako elizbarrutiko liburuzaina), Emilio Perez (Aramaioko gaur egungo parrokoa) eta Mikel Asurmendi (gotzaina).

Erretiratuenean egin dute bazkaria, eta bapo jan ere.



U.M.

Kofradiako abadeak, erretiratuen egoitzan, bazkaldu ostean.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 16a / 19. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

“UCI Pro Tourrekoek jakin egin behar dute lasterketa handiak txikiez elikatzen direla”

XABIER URTZELAI

Zalantza bat baino gehiago izan eta gero, azkenean Gatzagara ekarriko dute Euskal Bizikleta. Tebistarik egongo ez zela ikusita, atzera bota ziren Dorletako Amakoak. Gauzak, baina, bere onera etorri dira.

UCI Pro Tourrek ez die mesederik egin lasterketa eta itzuli txikiei. Eta, Euskal Bizikleta izan da horren adibideetako bat. Pro Tourreko egutegitik kanpo geratuta, maila goreneko profesionalek ez dute aurten itzuli hori aukeratu, bestela ere nahiko lan daukate eta egutegi osoa betetzen.

Hori ikusita, bazirudien Euskal Tebistak ez zuela datorren urteko Euskal Bizikleta eskainiko, eta gauzak horrela, Dorletako Ama Elkartekoek erabaki zuten Eibar-ko antolatzaileekin izandako hartu-emanak, momentuz, bertan behera uztea. Azken baten, diru asko behar da lasterketa hori Gatzagara ekartzeko, eta dirulaguntza eman dutenek tebistak ematen duen publizitatea gura dute trukean. Azkenean, baina, gauzak bere onera itzuli eta ekainean lasterketa izango da Gatzagan. Oraindik, baina, hainbat gauza dituzte erabakitzeko: zein egunetan egingo duten, ibilbidea,



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Antolatzaileen atsekaberako, egubakoitzean 24 lasterkarik baino ez zuten lasterketan esku hartu.

zenbat kilometro... Alberto Altubek esan digu gauzak ondo joaten badira hilabete honen amaieran egingo dutela batzarra.

HAUTESKUNDEEN ZAIN

Lasterketa eta itzuli txikien antolatzaileak zain daude UCiko hurrengo presidentea nor izango den jakiteko. Irailaren bukaeran

Madrilen egingo duten Munduko Txapelketa ostean egingo dituzte hauteskundeak, eta, besteak beste, Burgosko txirrindularitzako presidentea dago hautagai: “Burgosko Itzulia ere Pro Tour kanpoan dago, Euskal Bizikleta moduan, eta uste dugu gizon horrek lasterketa txikiekin beste jarrera bat izango duela. Hura aukeratzen

badute aldaketak egingo dituzte, eta beharrezkoak dira aldaketa horiek. Azken baten, lasterketa handiak proba txikiez elikatzen dira-eta; bien arteko oreka bilatu behar da”, gaineratu du Albertok.

“HANKA-SARTZEA EGIN DUGU”

Euskal Bizikleta alde batera utzita, joan den egubakoitzean ere

nahigabe galanta hartu zuten Dorletako Amako Elkartekoek: “Hogeita lau ziklista baino ez ziren etorri Gatzagako lasterketara, eta hortxe guk egin dugu hanka-sartzea. Goierriko Itzulia zegoela ikusita, on beharrez aldatu genuen lasterketa egubakoitzera. Gainera, herriko jaien barruan jartzeko aukera geneukan, eta hori guztia kontuan izanda hartu genuen erabakia. Gero konturatu ginen, baina, egubakoitza Gipuzkoan bakarrik zela jaieguna, eta ziklista askok lan egin beharko zuela egun hartan. Hori, baina, ez genuen lehenago pentsatu, eta hortxe egin genuen kale”.

Antolatzaileak dira atsekabe handien hartu dutenak: “Hori behintzat ikasi dugu, eta hurrengorako badakigu. Jendearn kritikak normalak dira, eta egin beharrekoak, gainera. Hori bai, federazioaren partetik egutegi bateratu bat egitea komeni da, gero eta lasterketa gutxiago ditugu-eta”. Epai-epaiekin Gatzagako lasterketa laburtzea proposatu zuten, baina antolatzaileek ez zuten onartu: “Manolo Zubillagak eta biok esan genien lasterketa egitekotan normal egingo genuela, aurreikusitakoa. Eta, bestela ez genuela egingo. Ezin gara ibili da azkeneko momentuan ibilbidea aldatzen. Gutxienez, auto ilara txikiagoak egon ziren errepidean”.

Zapore gazi-gozoa utzi dute jaiek, eguraldiaren eraginez

X.U.

Gatzagako jaiak amaituta, balorazioa egiteko ordua iritsi da, eta Kultura zinegotzi Jon Sasiainekin egon gara horretarako. Momentu batzuetan giro ederra izan badute ere, euriak ez du atsedunik eman.


“Ezin dugu esan jaiak guk gura genuen modukoak izan direnik, eta neurri handi baten eguraldi txarrak izan du eragina. Zapa-

tuan egin genuen herriko afarian sekulako giroa izan genuen, eta baita domekako pilota partiduan ere. Minguezek eta Fuertesek Capellanen eta Jaioren kontra jokatu zuten partidua ezin partekatua izan zen (22-21), eta pilotalekuan elkartutako herritarrok ederki gozatu genuen”.


Beste ekitaldi batzuk, berriz, ezin esan biribilak izan direnik: “Karra Elejalderen ikuskizunarekin hartu genuen pena handiena. Hura oso ondo portatu da gure-

kin, eta ikustekoa izan zen plazan zinema ikusteko zelako muntaia egin genuen. Baina azkeneko momentuan euria botatzen hasi zen, eta pilotaleku barruan zerbait egin gura izan bagenuen ere, emaitza ez zen bera izan, arazo teknikoak izan genituelako”.

Egia da gauetan ez dela giro handirik egon, baina eguraldiak utzi duen bitartean, egunez jendea ibili da Gatzagan. Eta, datorren urtean zer hobetu egoteko, aurten ezin dena ona izan.



Kanpotik ekarritako zinesmaskopearekin bueltaka ibili behar izan zuten.



Amagara

Erdiko kalea 54, behea. Tel.: 943 79 09 09

MARTU HAZI 2005

*Ederra egongo zara zure
beltzaran kolorearekin*

Promozio berezia:

6 saio ordu erdikoak + 1 doan

42 euro bakarrik!!!

Irailaren 16tik urriaren 7ra

***Beltzaran-kolore naturala
eguzkirik hartu gabe!***

Deitu bertara!

Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiak eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen arabera izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sentzibilitatearen arabera ere.

Urria berritasun askorekin dator

Urrian, Goiena Telebistako programazio berria

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!



Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1. 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino,6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22